# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia | Iruñean, 1997ko apirilaren 16a | 27 ZK.


**A U R K I B I D E A**


F SAILA:

**Galderak:**

—Genetikoki aldaturiko produktuei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).

—“Nekazaritza Azpiegituren Batzorde Teknikoa”ri buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Departamentuari dagokion “kreditu erreserba”ri buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

—Hotzaldia eta elurtea zirela eta hartutako neurriei buruzko galdera (Abaurreagaina eta Aezkoa ibarra, etab.). Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

—Andosillako udal industrialdeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—“Basoilarra” izeneko espezie babestuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—“Naumann belatza” izeneko espezie babestuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

—“Basoiloa” izeneko espezie babestuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

—“Ganga azpizuria” izeneko espezie babestuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

—“Txori zezen arrunta” izeneko espezie babestuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

—“Igaraba” izeneko espezie babestuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

—“Eper grisa” izeneko espezie babestuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

—“Bechstein saguzarra” izeneko espezie babestuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).

—“Ferra-saguzar mediterraniarra” izeneko espezie babestuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

—“Arratoi-belarri txikia” izeneko espezie babestuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

—“Okil ertaina” izeneko espezie babestuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

—Galzorian dauden espezieei buruzko berreskurapen plana prestatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).

—Ingurugiro Departamentuaren eta Urbasa eta Andiako Parke Naturalean eskubide historikoak eta erabilerakoak dituzten solaskideen arteko harremanei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).

**F Saila:**
**GALDERAK**

# Genetikoki aldaturiko produktuei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak genetikoki aldaturiko produktuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 21a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak genetikoki aldaturiko produktuei buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

Datozen lerrootan zure galdera erantzungo dut, galdera egin zen hurrenkera berean.

1. Nekazaritza eta Abeltzaintza Zerbitzuaren menpeko Ekoizpen eta Nekazaritza Merkatuei buruzko Atala da landareen ekoizpena eta osasuna kontrolatzen duen administrazio unitatea. Atalak, MAPAren (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa) informazioak edo eta Nekazaritza Kudeatzeko Institutu Teknikoak, ez dute aditzera eman Nafarroan salerosketa helburuarekin ekoizkin transgenikorik sartu denik.

2. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ez du honelako ekoizkinik merkaturatu den berririk. Hala ere, definizio eza, gaiaren konplexua eta berria izatea, eta tartean diren aurkako interesak direla medio, baliteke Nafarroan eragiketa komertzialen bat gertatu izana, beti ere ekoizkin klasiko baten eragiketa balitz bezala maskaraturik.

Gaurko egunean Europako Parlamentuak genetikoki aldaraziriko elikadura-ekoizkinak (G.A.E.) ekoiztu eta merkaturatzeko bidea ematen duen Erregelamendua onartu du, eta etiketa paratzearekin loturiko gorabeherak arautzen ditu. Jaso diren informazioen arabera, badirudiru murriztapen gutxi eta kontrolean definizio gutxi duen sistema aukeratu dela.

Jakin badakigu Nafarroako enpresa pribaturen batek uko egin diola atzerriko enpresa batekin lan egiteari tomate transgenikoaren aldaera bat esperimentatzeko. Esperimentua aldaeraren hazkundearen hasierako faseei zegokien, hazia merkaturatu baino lehenagokoei. Nafarroako beste hainbat industriak oztopo gogorrak jarri dituzte euren ekoizpen planetan tomate transgenikoaren aldaerak sartzeko.

3. Honelakoak zabaltzen dituen prentsan gaiarekin loturik dauden ikerleek esandako iritziak baizik ez dira ezagutzen.

Berri horietatik zein arautegitik ezin daiteke ondorio behin-betikorik atera. Ekoizkin bakoitza, erakunde bakoitza, askapen prozesu bakoitza, banan banan ebaluatu behar den mundu bat da. G.A.E nahita askatzea eta erabilera mugatua arautzen dituzten jarraibideek, edo eta prestakuntza zientifiko ertain-handiak harrapatzen ez dituen txosten eta gaztigu ugarik, ingurugiro eragina izatea balitekeela adierazten dute. Gainera, beti uzten dute bidea irekirik Administrazioak gauza zehatzen gaineko argibide gehiago eska ditzan, aipatu G.A.E. horien eraginak eta jokamoldeak etorkizunean ezagutzen doazen heinean.

4. Europako Batasuneko jarraibideek berek ezartzen dute euren eraskinetan, G.A.E.i buruzko jakinarazpenetan eskatzen den informazioa definitzeko orduan, “identifikatzeko eta antzemateko tekniken deskribapena”, baita “sentiberatasuna, fidagarritasuna (zenbatekoetan) eta identifikatzeko zein antzemateko tekniken espezifitatea”.

Horrek esan nahi du teknika horiek izan badirela, hainbat metodologiatan oinarritzen direla eta Administrazioaren esparrua gainditzen dutela. Alabaina, Iruñean dauden bi unibertsitateek informazio zabala daukate honi buruz.

5. Alde honetatik, ekoizkin transgenikoen etiketatzeari buruzko Europako Batasuneko erregelamenduaren garapena, baita Estatukoarena ere, itxoiten ari gara.

6. GAEren bidez egin daitezkeen ekoizkinak ugari dira. Hazi eta ugaltzeko materialetik hasi eta GAE oinarri duten ekoizkinak dituzten elikadura edo industri ekoizkinekin buka, aldaera transgenikotik abiaturik lortu diren uztak tarteko direla.

Gai honen gainean ardura duena Nekazaritza eta Abeltzaintza Zerbitzuari atxikiriko Nekazaritza Merkatu eta Ekoizpenei buruzko Atalaren menpeko Haziak eta Mintegiko Landareen Bulegoa da, honek kontrolatzen baitu haziak eta mintegiko landareak nola lortu, ekoiztu eta merkaturatu.

Alde horretatik, esan behar da aldaera transgenikoak lortzea jarduera arrunta izatera iristen ari dela ikerketa zentru publikoetako, enpresa pribatuetako eta Unibertsitateetako injinierutza genetikoaren lan-lerroen barruan.

Genetikari buruzko ezer aipatzen den edozein kongresutan gai honi buruzko emaitzak eta ondorioak ematen dituzten ekarpenak plazaratzen dira.

Ekoizpen eta merkatuen Atala aldaera transgenikoei buruzko ponentziak aurkezten ziren kongresuren batetara joan izan da, eta beti mintzatzen zen etorkizunean hazia bezala erabili ahalko litzatekeen gai genetikoa lortzearen ikuspuntutik, hau da, ugalketarako.

Aitzitik, G.A.E zeukaten ekoizkinak edo uztak merkaturatzeari buruzko ezer ez da aipatu bilera horietan. Egun MAPAko Hazi Aukeratuen eta Mintegiko Landareen Azpitalak eman behar duen informazioaren zain gaude, Europako Batasunean egin behar den bileraren ondoren, Autonomia bakoitzaren organo eskudunak hazi eta mintegiko landareen alorrean dauzkan eginkizunei buruzko jarduketa-irizpideen gainean informazioa emateko.

7. Oinarri zientifiko edo tekniko kontrastatuagoa eduki gabe, ez dirudi egokia jendarteko iritziarendako kanpaina egitea, oraingo une honetan kontsumitzaileen artean nahasmendua sor litekeelako.

8. Ez.

9. Europako Batasuneko eta Estatuko genetikoki aldaraziriko ekoizkinak merkaturatzeari buruzko legeak garatzearen zain gaude.

10. Haziak eta mintegiko landareak ekoizteari buruz, eskumenak Nekazaritza eta Abeltzaintza Zerbitzuko Haziak eta Mintegiko Landareen Bulegoarenak dira, esan behar delarik arautegi espezifikorik ez dagoen bitartean, eskumen hauek ugaltzeko ekoizkina bezala merkaturatuko den ekoizkina denez betetzen direla, eta ez G.A.E delako.

Iruñean, 1997ko otsailaren 13a

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

---

## “Nekazaritza Azpiegituren Batzorde Teknikoa”ri buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Nekazaritza Azpiegituren Batzorde Teknikoa”ri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 21a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nekazaritza Azpiegituren Batzorde Teknikoari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

Ondoren datozen erantzunak Nekazaritza Azpiegituren Batzorde Teknikoari buruzko galderen hurrenkera berean daude:

1. Nekazaritza Azpiegituren Batzorde Teknikoak, eratu zenetik, hiru bilera egin ditu, 1995eko martxoaren 6an, 1995eko azaroaren 20an eta 1996ko apirilaren 1ean.

Lehen bilerara, Batzordea eratzeko izan zenera, kide guztiak joan ziren.

Ondorengo hauek joan ziren azaroaren 20an egindakora:

Batzordeko Lehendakaria

Nekazaritza Egituren Zerbitzuko Zuzendaria

Nekazaritza eta Abeltzaintza Zerbitzuko Zuzendaria

Nekazaritzako Finantzaketa Zerbitzuko Zuzendaria

Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuko Zuzendaria

Natura Zaintzeko Zerbitzuko Zuzendaria

Riegos de Navarra, S.A. enpresako Kudeatzailea

Instituto Técnico y de Gestión Agricola, S.A. erakundeko Kudeatzailea

Herrilurren Ataleko Burua

Batzordeko Idazkaria

1996ko apirilaren 1ean eginiko bilerara honako hauek joan ziren:

Batzordeko Lehendakaria

Nekazaritza Egituren Zerbitzuko Zuzendaria

Nekazaritza eta Abeltzaintza Zerbitzuko Zuzendaria

Nekazaritzako Finantzaketa Zerbitzuko Zuzendaria

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Herrien Sustapenerako Kontseilariaren Kabineteko Burua

Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuko Zuzendaria

Riegos de Navarra, S.A. enpresako Kudeatzailea

Instituto Técnico y de Gestión Agricola, S.A. erakundeko Kudeatzailea

Herrilurren Ataleko Burua

Batzordeko Idazkaria

2. Hiru bileretarako deia Nekazaritza Azpiegituren Batzorde Teknikoko Lehendakariak egin zuen.

3. Lehen bilera guztiz formala izan zen, Batzordea eratzeko, eta era orokorrean hitz egin zen etorkizunean ukitu zitezkeen gaiez. Bilera horretarako aktarik ez dago. Bai, ordea, ondoren egin ziren bi bileretakoak. Foru Administrazioaren menpeko ezein organok ez du eskatu Nekazaritza Azpiegituren Erreformari buruzko Legearen gaineko txostenik.

4. Nekazaritza Azpiegituren Batzorde Teknikoan izan diren eztabaida, azterketa eta proposamenen ondoren honako Foru Dekretu hauek onartu dira:

Otsailaren 19ko 124/1996 Foru Dekretua, Lurzati Kontzentrazioa egiteagatik euren laborantza iraunkorretan ukituak izan diren ustiategientzako laguntzen ematea arautzen duena.

Apirilaren 1eko 173/1996 Foru Dekretua, Lurzati Kontzentrazioetan eman behar diren laguntzak arautzen dituena, ustiategiek oinarrizko azalera deitzen dena lor dezaten.

Maiatzaren 6ko 205/1996 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean laborantzako gutxieneko unitateak ezartzen dituena.

5. Aurreko zenbakian aipatzen diren Dekretuak Batzorde Teknikoak egin dituen lanen isla egoki dira, eta lan hauen ondorioz egun onartuta dauden Foru Dekretuen zirriborroak prestatu ziren.

6. Nekazaritzako Azpiegituren erreformari buruzko Foru Legearen garapenean eragina izan dezaketen gaietan adituak direnek osatzen dute Batzorde Teknikoa; hortaz, Foru Lege hartan xedatu dena egituratzeko egin eta egingo diren erregelamendu mailako ekimenetan, aholku emaile gisa, garrantzia handia eduki eta edukiko dute.

7. Ez. Bakarrik esatea ezen, Batzorde Teknikoko gaur egungo osaketan iritzia eman behar den gai bati buruz dakien aditurik ez baldin bada, orduan mahaigaineratzen ahal dela eratzeko Foru Dekretua aldatzea eta osaketa zabalagotzea dagokion Administrazioko espezialistarekin.

Iruñean, 1997ko otsailaren 10a

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

## Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Departamentuari dagokion “kreditu erreserba”ri buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Departamentuari dagokion “kreditu erreserba”ri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 17ko 9 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 22a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeko kide den Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Aracama Ekonomi eta Ogasun Kontseilari jaunak “kreditu erreserba” egin beharraz hainbat komunikabideri egindako adierazpenei buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna.

1.- Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Departamentuari buruzko datua zuzena den.

Lehendakaritza eta Barne Departamentuak 1997rako duen gastu-aurrekontua 15.390 milioi pezeta da, eta, hori berez dator, ekitaldi guztian zehar konprometitu eta gastatuko da. Beraz, urtearen lehenengo aldi honetan kopuru bat izango da, 135 milioi baino gehiago, are, ohiko administrazio-jardunaren arabera konprometitzea aurreikusten ez dena.

2.- Zer kontusailetan eta zenbat aurrekontu-lerrotan eginen den “erreserba” hori eta zenbat dirutan lerro bakoitzean (bat baino gehiago ukitzen badu).

Jardun ekonomikoaren bilakaerak erakutsiko du aurrekontuetako dirusarrera-aurreikuspena betetzen den ala ez. Urtearen zati bat igaro arte ez da jakiterik izango, ordea, eta ez da beharrezkotzat jo erreserba berezirik finkatzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek ezarritakoaren babespean.

Iruñean, 1997ko otsailaren 17a

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

## Hotzaldia eta elurtea zirela eta hartutako neurriei buruzko galdera (Abaurreagaina eta Aezkoa ibarra, etab.)

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak hotzaldia eta elurtea zirela eta hartutako neurriei buruz (Abaurreagaina eta Aezkoa ibarra, etab.) egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 22a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kide den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Foru Komunitatean urtarrilaren 3, 4 eta 5ean izandako hotzaldia eta elurteari buruz, batez ere Abaurreagainean eta Aezkoan. Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 190. artikuluak xedatuarekin bat, hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna, Barne eta Herrilan Zuzendaritza Nagusien informazio eta jarduketetan oinarritua. Hurrenkera berean erantzungo dira galderak:

1.- Zergatik atzeratu zen hainbeste trafikoaren birrezarpena, Eiaurrietatik Abaurrera bitarte?

Elurte itzela izan zen joan den urtarrileko 3, 4 eta 5ean, 0,40 metrotik 1,40ra bitarte lodi, eta ez bakarrik aipatu eskualdeetan, izan ere, eragin bera izan zuen Agoizko Zaintza Barrutiko goialde guztiak (Ibañeta, Erronkari, etab.). Horrek, jakina, zeuden baliabideak banatu beharra ekarri zuen, ukitutako errepide guztietan elurra garbitu ahal izateko.

Hori zela eta, atzerapena gertatu zen, ohikoa baino handiagoa, aipatu errepide-zatia guztiz ireki orduko. Garbitzeko lanak, ordea, eta hala dago jasota parteetan, 90 ordu baino askoz denbora-epe laburragoan hasi ziren.

Oraingo honetan azaldu den arazoa larriagotu egin da errepide-zati anitz moztuta izateagatik, elurraren pisuaz erori ziren zuhaitzek elurra bildu baitzuten, haizetearen ondorioz, eta elurra kentzeko ekipoen ohiko jarduna oztopatu, atzerapena eraginez.

Ustekabeak ere izan ziren, hainbat baliabide erakarri zituztenak, hots: Belabartzen isolaturiko pertsonen erreskatea; ITGren presako deia, Erremendian zegoen aziendari jatekoa eramateko; eta elurra kentzeko makinaren bat bazterreratzeak eragindako denbora galtzeak, kontuan izanik Ibañeta eta Belabartzeko lana oso zaila zela. Gainera, kontutan izan behar da urtarrilaren 3, 4 eta 5ean Abaurreagaina eta Eiaurrietako herrietara iristeko modua izan zela Aribe eta Ezkarozetik, hurrenez hurren, kateekin.

2.- Eskura izan ditu Foru Komunitateko Administrazioak eskualde horretan aurreko elurteetan, herriak indar handiagorekin ukitu zituzten horietan, erabili izan diren baliabideak?

Elurteokin errepide nagusiak irekitzeko nahikoa izan ohi diren baliabideak erabili dira, elurte bakoitzak berezitasunak dituen arren (tenperatura gutxiago edo gehiago jaitsi, iraupen handiagoa edo txikiagoa, elur jasaren indarra, eta baita haize nagusien norabidea), Beraz, elurte bakoitzak bere zerak ditu eta inoiz ezin da aurretik jakin eskueran diren baliabideak nahikoa izango ote diren ala ez. Horra oraingoan eskura izan diren baliabideak:

Berekiak

– Elurra kentzeko lau ekipo (Xafladun edo ziridun kamioiak)

– Lau kalapatxa

Beste inorenak

– Elurra kentzeko 3 ekipo (Ziridun kamioiak)

3.- Beharrezkotzat jotzen du Nafarroako Gobernuak eskualde horretan eskura dauden baliabideak areagotzea, herri horietan hain ohikoak diren elurte eta hotzaldietan arintasun handiagoz jarduteko?

Norbere baliabideak erabiltzen dira beti eta eskualdean eskura dauden batzuk kontratatzen ahalegintzen gara. Aitortu beharra dago, hala ere, egoera berezi batzuetan gutxi izan daitezkeela.

Horrelako ekaitzak ez dira ohikoak. Gogoratzen den azkenengo ekaitz labur eta bizia 1978an izan zen. Geroztik, luzeagoak izan dira baina eguneroko elur gutxirekin.

Elurteak iraun egiten badu, beste barruti batzuetako eta beste kontrata batzuetako ekipoetara jotzen dugu.

Beste alde batetik, esan behar da 1991n 1.000.000 pezetako dirulaguntza eman zitzaiola Abaurreagaineko Udalari herri horretan heliportua egiteko, Udalaren arabera herria sarri geratzen zelako isolaturik.

Udalak irispidea besterik ez zuen egin eta, hurrengo ekitaldian, ez zuen dirulaguntzarik eskatu obra bukatzeko.

4.- Ba ote du Nafarroako Gobernuak asmorik herri horietako bizilagunei eragin dieten kalte ekonomikoa zenbatesteko, bai errepideko mozketa luzeari dagokionez, bai argindarraren hornidura-ren etendura luzeari dagokionez?

S.O.S. Nafarroak ez zuen Abarrauegaina edo Eiaurrietatik deirik jaso, jakiak, gas-olioa edo antzekorik eskatzeko, Abarrauegaina edo Eiaurrieta isolaturik zirela eta, isolamendurik ez zelako gertatu, bi herrietarako ohiko irispideak irekita baitzeuden, Abaurreagainekoa Aribetik (kateekin) eta Eiaurrietara Ezkaroztik.

Urtarrilaren 5ean, 10ak eta 20 inguruan, Kudeaketa Teknologikoaren Zerbitzuaren Agoizko Zaindaritzatik deitu zuten Abaurreagaineko 769052 telefonora, egoerari buruzko lehen eskuko informazioa jasotzeko asmoz. Erantzun ziguten egoera ez zela larria, eta ez zuten aipatu hornidura edo posta eskasiarik, eta abar.

Ez dugu aipatzen den kalte ekonomikorik ezagutzen.

5.- Azkenik, uste du Nafarroako Gobernuak Abaurreagaineko bizilagunei emaniko zerbitzua behar bezalakoa izan dela, elurtearen ondorioei aurka egiteko modukoa?

Gure esku zeuden baliabide guztiak erabili genituen, gureak eta beste inorenak, jasandako

ekaitzaren berezitasunei aurre egiteko (hedadura handiari, indarraren handiari eta ustekabeei). Beraz, ezinezko izan zitzaigun Eiaurrieta-Abaurreagaina aldeari arreta handiago egitea. Ez da ahaztu behar Ezkarozetik eta Aribetik irispidea zegoela, zailtasunekin bazen ere, isolatzeko arriskua gutxitu egin zuena.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek ezarritakoaren babespean.

Iruñean, 1997ko otsailaren 19a

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

# Andosillako udal industrialdeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak Andosillako udal industrialdeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 17ko 9 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 22a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeko kidea den José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak Andosillako udal industrialdeari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

Industri Zuzendari Nagusiak apirilaren 9an emaniko 245/90 Ebazpena eman zuen, eta haren arabera Andosillako Udala Udal Industria-lurzoru Sustatzeko Laguntza Planean sartu zen, udal industrialdea egin zezan.

1. Ondoren datoz zerrendaturik Udalari zehaztu eta ordaindu zaizkion laguntzak:

a) Hirigintza proiektuen prestakuntzaren kostuaren %70ko itzuli beharrik gabeko dirulaguntza, 5.811.563 pezetatan zehaztu zena eta 1990 urtean ordaindu zena.

b) Korriturik gabeko aurrerakin itzulgarria, Industrialdea eraikitzeko lurrak erostearen kostuaren %70 jotzen zuena. Industri Departamentuak 1990-5-28an ordaindu zuen, eta aurrerakinen kontzeptupean ordaindu zenak 88.689.266 pezeta egiten zuelarik.

Aurrerakin hau Nafarroako Gobernuari itzuli behar zaio, 1991ko urriaren 30etik aurrera, hamar urteko kuota berdinak itzuliz, 2.000 urtera arte, hau ere barne, urteroko kuotak 8.868.937 pezeta jotzen duelarik.

c) Industrialdea Urbanizatzeko Lanen kostuaren %70ko korriturik gabeko aurrerakin itzulgarria. Industri Departamentuak 1992-9-15ean ordaindu zuen azken ordainketa, eta aurrerakinen kontzeptupean ordaindu den kopuru osoak 184.446.345 pezeta egin du.

Aurrerakin hau Nafarroako Gobernuari itzuli behar zaio, 1993ko irailaren 30etik aurrera, hamar urteko kuota berdinak itzuliz, 2.002 urtera arte, hau ere barne, urteroko kuotak 18.444.634 pezeta jotzen duelarik.

2. Industrialdearen eraikuntzan atzeman diren akatsak direla-eta, ondorengo hauek esan behar dira:

a) Andosillako Udalak, Industrialdea sustatzen zuena zenez, Industrialdea Urbanizatzeko Lanak egingo zituen enpresa kontratatu zuen, baita lan horien zuzendaritza teknikoa ere.

b) Industri Departamentuak, obra-ziurtagiriaren kopiak ikusten zituelarik, zatikako aurrerakinen ordainketak onartu zituen. Ziurtagiriak Zuzendaritza Teknikoak, Enpresa eraikitzaileak eta Udaleko Alkateak izenpetzen zituen, eta aurretik Departamentuko teknikariek egina zuten bisita obrak burutu ote ziren baieztatu ahal izateko.

c) Departamentuko Zerbitzu Teknikoei agindu zien obren jarraipen “ikusizkoa” egitea, neurketan eta burutzean zuzenean parte hartu ez zutelarik (industrialdea udalaren eskumenekoa baita) bazegoelako Andosillako Udalak kontrataturiko Zuzendaritza Teknikoa badagoelako, lanak ongi burutzearen arduradun nagusia dena.

d) Halaber, esan behar da Departamentuko Teknikariek badakitela obra burutzen ari zenean, eta ekaitza bat izan zelarik, lurjausiak, material-garraioa eta espaloien zintarriketa haustea sorrarazi zituen eurijasa bat izan zela, eta matxura hauek guztiak obra egiteko garaian konpondu zirela.

e) Ondoren, obra burutu eta gero bideen, espaloien eta zintarrien jausteak atzeman ziren, baita Industrialdeko hainbat tokitan zoladura arraildu zela ere; hau guztia gertatu ahala konpondu omen da, Departamentuko Teknikariek egin dituzten ohiko bisitetan ikusi ahal izan denez.

3.- Industria Departamentuko jarduketei dagokienez, aipatu behar da Industrialdea kudeatu eta zaintzeko erantzukizuna Andosillako Udalaren eskumena dela, Departamentuak lurzati librerik ba ote den galdetu baizik ez duela egin, enpresaren batek hala eskatu nahiko lukeen, baita Udalari gogoraraztea ere Industrialdea garbitzeak eta zaintzeak irudi hobea ematen duela, eta horrekin batera interesatuak egon litezkeen enpresei egiten zaien eskaintzaren kalitatea handiagoa dela.

Azken ondorio gisa, berriro esan behar da Industrialdearen kudeaketa Andosillako Udalaren erantzukizuna dela, berau baita sustatzailea, eta Departamentuaren erantzukizuna kostuak finantzatzeko erraztasunak ematea baizik ez dela, udal Industri lurzoruak sustatzeko Laguntzei buruz bere garaian indarreko legeak arautu zuenarekin bat etorriz.

Iruñean, 1997ko otsailaren 19a

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

---

## “Basoilarra” izeneko espezie babestuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Basoilarra” izeneko espezie babestuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 22a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Basoilarra” izeneko espezie babestuari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Zer azterketa, jarraipen eta jarduerak egin dute posible espezie hori arriskuan jartzen duten faktore nagusiak ezagutzea? Hurrengoak eskatzen dira: izena, jarduketen deskripzio laburra, egin dituen entitate, erakunde edo enpresa eta haietariko bakoitzaren aurrekontua.

1989 eta 1990 urteetan Ugarra Azterketa Biologikoen Taldeak bi azterketa egin zituen Ingurugiro Zuzendaritzarentzat basoilarraren egoerari buruz Nafarroan: 1) “Basoilarraren (Tetrao urogallus) errolda, zabalkundea eta ugaltze-arrakasta Nafarroan” eta 2) “Basoilarraren (tetrao urogallus) kantatokien kontrola eta babesteko neurriak Nafarroan”. 1993 urtean Ingurugiro Zuzendaritzak Carmelo Fernández León doktoreari agindu zion “Basoilarra (Tetrao urogallus) Nafarroan berreskuratzeko Plana prestatzea”. Lan hau 346/1993 Foru Aginduaren bidez kontratatu zen, eta aurrekontua 2.248.250 pezeta zen.

Aldez aurretiko azterketen arabera, 1994 urtetik aurrera Ingurugiroko Zaindariek, Departamentuko teknikari baten gidaritzapean, aurkitu diren basoilarren kantatokien bilakaeraren urteko kontrola egiten dute.

2.- Zenbat ale ditu espezie horrek gure Komunitatean? Zer azalera uste da haren natur habitatek gaurregun hartzen dutela?

1989-90 urteetan egin diren zenbaketen arabera, Nafarroako basoilarren populazioa 12-15 arrek (10-12 ar Larran eta 2-3 Aezkoan) osatzen dutela jotzen da. Basoilarren populazioetan izaten den sexuen arteko zenbaki-harremanaren arabera, emeen kopurua antzerakoa edo pixkatxo bat handiagoa izango dela jotzen da; hortaz, esan

daiteke Nafarroan basoilarren populazioa 30 bat alek osatuko dutela.

Gaur egun basoilarren populazio txiki hau, geografikoki Pirinioan dagoen gainerako populazioarengandik isolaturik bizi dena, bi tokitan baizik ez dago, Erronkaribarko buruan (Larran) eta Aezkoan, eta eskualdeko zabalkunde-azalera 14 Km$^2$ baino txikiagoa da.

3.- Zer jardunbide garatu asmo ditu Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hura berreskuratzeko behar diren jarduketak abian jarri arte? Zer jarduketalditan dago gaurregun espezie horren berreskurapen plana?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak asmoa du Basoilarra Nafarroan berreskuratzeko Planaren proiektua jendaurreko informaziora zabaltzeko.

4.- Zein da espezie horren berreskurapen planaren prestakuntzarekin lortu nahi den azkeneko helburua, galzorian egoteko faktoreak zuzentzeko?

Behin-behineko prestakuntzaren arabera, Basoilarra berreskuratzeko Planaren azken helburua honako hau da: “gaur egun gure Komunitatean dagoen basoilarren populazioa zaintzea eta gehitzea, gainerako Pirinioko populazioarekin harremanetan sartzeko beste ale eta zabalkunde-azalera lortuko duen arte, horrela espeziearen bideragarritasuna segurtatu ahal izateko epe luzera”.

Helburu hau ondorengo xede operatiboetan zehazten da:

a) Populazioak lortu behar dituen gutxieneko tamainak 100 ale heldu baino handiagoa izan behar du.

b) Populazio hori gutxienez lau populaziogune iraunkorretan biziko da, eta

c) Populaziogune horiek elkarren artean harremanean izango dira, baita Oskako eta Frantziako basoilarren populazioekin ere, eta guneen arteko gehieneko urrunera 10 km izango da.

5.- Zehaztu da espezie horren berreskurapen planerako aplikazio eremua? Zer baldintzatan? Lurralde eremu hori babes araubideren baten menpe dago?

Behin-behineko Berreskuratze Planak hartzen du bere aplikazio-eremutzat Nafarroan basoilarrak har lezakeen balizko hedadura, eta bertan sartuko lirateke Piriniotako ibarretako zatirik gehienak, Leiretik Frantziara eta Kintotik Oskara. Aplikazio-eremu honen barruan, bada behin-behineko antolatze bat, honako eremu hauek zehazten dituena: 1) bi alderdi kritiko (egun populazio iraunkorrek betetzen dituzten alderdiak) eta 2) lehentasunezko jarduketei ekiteko eremuak (habitata hobetzeko bideraturiko hainbat neurri bere baitan biltzen dituen alderdiak)

Bi alderdi kritikoak eta lehentasunezko jarduketei ekiteko eremuen zati handi bat babesten diren guneen artean daude.

6.- Zer eremu kritiko, lehentasunezko jarduketakoak eta banaketa potentzialekoak daude aztergai edo aztertzeke, espeziea “in situ” berreskuratzeari ekiteko? Eskatzen dira haietariko bakoitzaren izena, herria eta izan lezakeen azalera.

Planak deskribatzen dituen bi alderdi kritikoak, oraindik basoilarraren populazio iraunkorrak biltzen dituena, Larrako Natur Erreserbako partea badira (RN-12), 2.353 Ha-ko azalerarekin, eta Ukerdiko Erreserba Integraleko parteak, 322 ha-ko azalerarekin (6/1987 Foru Legea), eta 630 Ha inguru betetzen dituen Baigurako Fauna Babesteko Area (BFBA/APFS-6, 86/1995 Foru Dekretua).

Era berean, lehentasunezko interesa duten eremurik gehienak, habitata hobetzeko neurriak aplikatuko liratekeenak, ondoren aipatzen diren Hegaztiak Bereziki Babesteko Eremu (HBBE-ZEPA) hauen barruan geldituko lirateke: Larra-Aztaparreta (ZEPA-2), Irati-Orreaga (ZEPA-5), Areetako mendiak (ZEPA-8) eta Arrigorrieta-Ezkaurre (ZEPA-9), E.E.E.ko Europako Batasunaren aurrean 79/409 Zuzentarauak hala aitorturik.

7.- Espezie horren berreskurapen planean, espeziearen beraren ezaugarrien ondorioz, zer xede eta jarduera beharko lirateke kontuan hartu nahitaez, zaintzeko, eremu kritikoak bermatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko?

Basoilarraren Berreskuratzeko Planaren zirriborroak biltzen dituen jarduketek lau oinarrizko gorabehera hartzen dituzte kontuan:

a) Egun betetzen dituen alderdi txiki horien (alderdi kritikoak) babes zorrotza, Larra (RN-12) eta Ukerdiko (RI-2) Erreserbetako zein APFS-6ko kudeaketa eta erabilera planetan indarrean dauden arautegiak benetan betearaziz; batez ere Larrako (RN-12) oihanetan iraupeneko eskian aritzeari buruzkoan eta Aezkoako (APFS-6) isileko ehizari buruzkoan.

b) Lehentasunez jarduteko alderdian oihangintzako ohiturak aldatzea, Nafarroako Gobernuaren Natura Zaintzeko Zerbitzuarekin lankidetzan, zuhaiztiei oihangintza-tratamendua emanez, mendietan zenbait zuhaitz zahar zein egurra ateratzeko balio ez duten zenbait espezie gordeaz, baso puruak saihestuz, hostozabalak eta koniferoak nahasirik dituzten basoak bultzatuz, eta baso

barruan zuhaixka-artea eta soiluneak izan daitezen ere bultzatuz.

c) Horrekin batera, Planak Nafarroako populazioak jarraitu eta kontrolatzeko neurriak biltzen ditu, eta espezieak eskualdean duen biologiaren ezagutza hobeagotzeko ere.

Azkenik, proiektuak ukitutako talde sozialen sentiberatasuna gehiagotzeko zenbait jarduketa zehazten ditu (baso-langileak, abeltzainak, ehiztariak, eskiatzaileak eta iritzi publikoa, orokorrean), Nafarroan espezieak dituen babes-beharra, arazoak eta egoera ezagunak izan daitezen.

8.- Nekazaritzari, ehizari, kirolari eta jokuei edo aisialdiari dagokienez, zer murrizketa ezarri beharko lirateke jarduera horien garapena espezie hori eta haren habitatak zaintzeko baldintzekin bat etortzeko?

Planaren proiektuaren arabera, erabileraren murrizketak gogorrak izango dira alderdi kritikoen barruan. Alabaina, eta alderdi kritiko horiek babesgune aldarrikatu diren eremuetan daudenez, nahikoa litzateke 131/1991, 138/1991 eta 86/1995 Foru Dekretuetan onartu diren Erabilera eta Kudeaketa Planak betetzearekin.

Gainerako aplikazio-eremuan ez da aurreikusten erabilera murriztea. Lehentasunezko alderdi horietan ohiko oihangintzan zein Nafarroako Gobernutik beretik bultzatzen den baso-ereduan aldaketa txikiak egingo lirateke, basoaren egoera hobetzeko, Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeko 13/1990 Foru Legeak ezartzen duen bezala.

9. Beharrezkoa da edo aurreikusten da espezie horren birkolonizazioa espeziea har lezaketen bestelako habitatetan? Zenbat ale beharko litateke sartu, ustez?

Une honetan, ez da beharrezkoa ikusten basoilarren populazioa handiagotzea, nahiz eta ikertu den haien aldekoak izan daitezkeen aldeetan (Larran, adibidez) espeziea birsartzea litekeena ote den, inguruak basoilarra hartzeko gaitasunarekin zerikusirik ez dituzten arrazoi antropikoak direla medio populazio autoktonoak desagertuko liratekeen kasurako.

Beste alde batetik, Nafarroako populazioaren gune txikietan atzeman den populazio-dentsitatea eta espezieak duen zabaltzeko gaitasuna nahikotzat jotzen dira bizirik iraun duten populazio-guneek Nafarroako Pirinio guztia berez birkolonizatzeko abiapuntu bezala joka dezaten; baldin eta, Planean aurreikusten diren jarduketei esker, Pirinioko basoaren habitataren hobekuntza nabarmena gertatzen bada, eta iritzi publikoa kontzientziatzeak isileko ehiza desagerrarazten badu.

10.- Berreskurapen planaren garapena espezie hori bizi dela dakigun ondoko Komunitateetara zabaltzen da edo horiek ukitzen ditu? Zer kontsulta eta koordinazio tresna ezarri asmo dira haiekin Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentutik? Eta Estatuko erakundeekin?

Nafarroako Basoilarra Berreskuratzeko Planak aurreikusten du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Berreskuratzeko Planaren kopia honako hauei bidal diezaien: Ingurugiro Ministerioari, Aragoiko Zuzendaritza Nagusiko Ingurugiro Kontseilaritzari eta Frantziako Pirinio Atlantikoetako Departamentuko O.N.C.ri, egoki deritzeten neurri osagarriak har ditzaten.

11.- Espezie horren berreskurapen planak izan dezake finantzaketarik beste edozein entitate publiko edo pribatutatik, bai gure Komunitatean, bai kanpoan?

Nafarroako Basoilarra Berreskuratzeko Planak ez du, oraingoz, inolako finantzaketarik, ez publikorik, ez pribaturik ere.

12.- Ba ote dauka Nafarroako Gobernuak behin-behineko edo behin betiko egutegirik berreskurapen plana aztertu, prestatu, argitaratu eta abian jartzeko?

Aurrez egin beharreko azterketak egin eta gero, eta Berreskuratzeko Planaren proiektua prestatu eta gero, ez da oraingoz aipatu Plana onartu eta abian jartzeko behin betiko egutegirik.

13.- Ba ote du asmorik Nafarroako Gobernuak berreskurapen planak inola ukitzen dituen toki entitateekin aldez aurretik harremanik edo kontsultarik izateko? Eta espezie horren berreskurapen planak ukituriko elkargo, federazio eta bestelako taldeekin?

Planean aplikazio-eremua finkatu eta gero, Plana udal-dermioa eremu horren barruan duten toki entitateei jakinaraziko zaie.

Gainerako entitateek Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko aholkularitza organoen bidez hartu dezakete esku, edo, azken finean, jendaurrera zabaltzeko epean.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 18an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

# “Naumann belatza” izeneko espezie babestuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Naumann belatza” izeneko espezie babestuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 22a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Naumann belatza” izeneko espezie babestuari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Zer azterketa, jarraipen eta jarduerak egin dute posible espezie hori arriskuan jartzen duten faktore nagusiak ezagutzea? Hurrengoak eskatzen dira: izena, jarduketen deskripzio laburra, egin dituen entitate, erakunde edo enpresa eta haietariko bakoitzaren aurrekontua.

Azterlanak:

PUNTO Nafarroako Hegoaldeko estepako hegaztiak, 1989. Egilea: Jesús Elósegui Aldasoro.

PUNTO Nafarroako estepako abifauna zaintzeko interesguneen inbentarioa eta kategorizazioa, 1995. Egileak: Carlos Astráin Massa, Amaia Echeverría Delgado eta Jesús Elósegui Aldasoro. Prezioa: 6.999.440 pezeta.

PUNTO Nafarroan arriskuan dauden ornodunen katalogoa, 1994. Doñanako estazio bilogikoa. C.S.I.C. Prezioa: 7.750.000 pezeta.

PUNTO Naumann belatza berreskuratzeko planarendako faktore demografikoen azterketa eta oinarrizko dokumentazioa, 1995. Egilea: José Antonio Donázar Sancho. Doñanako estazio bilogikoa. C.S.I.C. Prezioa: 1.000.000 pezeta.

2.- Zenbat ale ditu espezie horrek gure Komunitatean? Zer azalera uste da haren natur habitatek gaurregun hartzen dutela?

Ez dakigu oraindik populazioaren benetako neurria zein den, baina badirudi ez dela habia egiten duten 20 bikote baino gehiago izango. Espezie migrari honek herrietako eraikuntza zaharren teilatuetan egiten du habia, Nafarroan. Gaur egun ez dakigu habia egin duten kolonien larreratze eremua zein den. Nafarroako estepa-eremutik iparralderago ere antzeman dira ale solte batzuk.

3.- Zer jardunbide garatu asmo du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hura berreskuratzeko behar diren jarduketak abian jarri arte? Zer jarduketalditan dago gaurregun espezie horren berreskurapen plana?

Urtero egiten du Departamentuak hegaztion jarraipen berezia, basazainekin eta laguntza teknikoekin.

Gaur egun, espezie hau berreskuratzeko planari buruzko Foru Dekretua prestatzeko oinarri teknikoak eginda daude.

4.- Zein da espezie horren berreskurapen planaren prestakuntzarekin lortu nahi den azkeneko helburua, galtzorian egoteko faktoreak zuzentzeko?

Espeziea galtzeko arriskuan daudenen artetik kentzea, hau da, epe luzean, Nafarroan iraungo duela bermatzeko moduko populaziora iristea.

5.- Zehaztu da espezie horren berreskurapen planerako aplikazio eremua? Zer baldintzatan? Lurralde eremu hori babes araubideren baten menpe dago?

Bai, berreskuratzeko planen oroit-idazki tekniko guztietan ageri da aplikazio eremuaren azalera. Guneak hurrenez hurren jarri dira, espezieak irauteko eta bizitzeko duten garrantziaren arabera.

6.- Zer eremu kritiko, lehentasunezko jarduketakoak eta banaketa potentzialekoak daude aztergai edo aztertzeke, espeziea “in situ” berreskuratzeari ekiteko? Eskatzen dira haietariko bakoitzaren izena, herria eta izan lezakeen azalera.

7.- Espezie horren berreskurapen planean, espeziearen beraren ezaugarrien ondorioz, zer xede eta jarduera beharko lirateke kontuan hartu nahitaez, zaintzeko, eremu kritikoak bermatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko?

Oinarri teknikoetan proposatu diren guneak eztabaidatu behar dira, eremu kritikotzat jo aurretik. Bien bitartean, balizko guneak kontrolatu egiten dira, aldian-aldian, espezieen bilakaera eza-

gutu eta baloratzeko asmoz, lurraldearen erabilera ezagunekin uztartzeko moduan.

8.- Nekazaritzari, ehizari, kirolari eta jokuei edo aisialdiari dagokienez, zer murrizketa ezarri beharko lirateke jarduera horien garapena espezie hori eta haren habitatak zaintzeko baldintzekin bat etortzeko?

Hasieran, egun diren erabilera guztiak mantendu ahalko dira planak ezarriko diren lurretan. Berreskuratze planen barruan finkatuko dira eremu eta aldi kritikoak, espezieak aldi batean uki ditzakeen erabilerei buruzko neurri babestaile, zuzentzaile eta orekatzaileak aurreikusi ahal izango direlarik.

9. Beharrezkoa da edo aurreikusten da espezie horren birkolonizazioa espeziea har lezaketen bestelako habitatetan? Zenbat ale beharko lirateke sartu, ustez?

Une honetan, ez dago daturik espeziearen balizko birsartzeari ekitea beharrezko egiten duenik.

10.- Berreskurapen planaren garapena espezie hori bizi dela dakigun ondoko Komunitateetara zabaltzen da edo horiek ukitzen ditu? Zer kontsulta eta koordinazio tresna ezarri asmo dira haiekin Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentutik? Eta Estatuko erakundeekin?

Estepako espezieak berreskuratzeko planen arloko koordinazioa Flora eta Fauna Batzordearen bitartez egiten da. Autonomi Elkarte guztiak daude ordezkatuta eta Ingurugiro Ministerioari dagozkio lehendakaritza eta idazkaritza. Harreman berezia dago Aragoi eta Gaztela-Leongo komunitateetako zerbitzu teknikoekin, horietan baitaude Espainiako estepa-alderik garrantzizkoenak.

11.- Espezie horren berreskurapen planak izan dezake finantzaketarik beste edozein entitate publiko edo pribatutatik, bai gure Komunitatean, bai kanpoan?

Berreskuratzeko planaren barruan sartu diren ekintzen ondorioz, proiekturen bat sor daiteke Europako Batasuneko LIFE programaren deialdietara aurkezteko moduan. Nekazaritza eta ingurugiroko zenbait neurri bat datoz planaren aurreikuspenekin.

12.- Ba ote dauka Nafarroako Gobernuak behin-behineko edo behin betiko egutegirik berreskurapen plana aztertu, prestatu, argitaratu eta abian jartzeko?

Ez. Aurtengo urtea bukatu baino lehen izango omen da prest.

13.- Ba ote du asmorik Nafarroako Gobernuak berreskurapen planak inola ukitzen dituen toki entitateekin aldez aurretik harremanik edo kontsultarik izateko? Eta espezie horren berreskurapen planak ukituriko elkargo, federazio eta bestelako taldeekin?

Planean aplikazio-eremua finkatu eta gero, Plana udal-dermioa eremu horren barruan duten toki entitateei jakinaraziko zaie.

Jendaurreko informazio-aldia hasi aurretik, Departamentuak badu asmoa berreskuratzeko planaren zirriborroa toki erakundeei eta ukitutako taldeei aurkeztu eta haiekin eztabaidatzeko.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 19an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## “Basoiloa” izeneko espezie babestuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Basoiloa” izeneko espezie babestuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 22a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Basoiloa” izeneko espezie babestuari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Zer azterketa, jarraipen eta jarduerak egin dute posible espezie hori arriskuan jartzen duten faktore nagusiak ezagutzea? Hurrengoak eskatzen dira: izena, jarduketen deskripzio laburra, egin dituen entitate, erakunde edo enpresa eta haietariko bakoitzaren aurrekontua.

Azterlanak:

• Nafarroako Hegoaldeko estepako hegaztiak, 1989. Egilea: Jesús Elósegui Aldasoro.

• Nafarroako estepako abifauna zaintzeko interesguneen inbentarioa eta kategorizazioa, 1995. Egileak: Carlos Astráin Massa, Amaia Echeverría Delgado eta Jesús Elósegui Aldasoro. Prezioa: 6.999.440 pezeta.

• Nafarroan arriskuan dauden ornodunen katalogoa, 1994. Doñanako estazio bilogikoa. C.S.I.C. Prezioa: 7.750.000 pezeta.

• Basoiloa berreskuratzeko planarendako faktore demografikoen azterketa eta oinarrizko dokumentazioa, 1995. Egilea: Jesús Elósegui Aldasoro. Prezioa: 977.500 pezeta.

• Ochoaren ondorengoekiko lankidetza-hitzarmena, La Sarda izeneko finka basoiloa (Otis tarda) babesteko kudeatzeari buruzkoa. 5.500.000 pezeta 1996ko ekitaldian.

2.- Zenbat ale ditu espezie horrek gure Komunitatean? Zer azalera uste da haren natur habitatek gaurregun hartzen dutela?

Urtarrila-otsaila: 17; martxoa: 19; apirila: 16; maiatza: 5; ekaina; 5; uztaila: 12; abuztua: 13; iraila: 16; urria: 17; azaroa: 18 eta abendua: 18. 1996ko datuak.

Ezin da zehatz-mehatz esan espeziean hartzen duen azalera. Nafarroan, bai ugaltzeko eremuak, bai tarteka-marteka okupatzen dituenak toki lauak edo leunak dira, laboreekin eskuarki, koltza, ekilore, zainzuri eta mahastiak larrez beteriko landugabeko lurrekin tartekaturik.

3.- Zer jardunbide garatu asmo du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hura berreskuratzeko behar diren jarduketak abian jarri arte? Zer jarduketalditan dago gaurregun espezie horren berreskurapen plana?

Urtero egiten du Departamentuak hegaztion jarraipen berezia, basazainekin eta laguntza teknikoekin.

Gaur egun, espezie hau berreskuratzeko planari buruzko Foru Dekretua prestatzeko oinarri teknikoak eginda daude.

4.- Zein da espezie horren berreskurapen planaren prestakuntzarekin lortu nahi den azkeneko helburua, galtzorian egoteko faktoreak zuzentzeko?

Espeziea galtzeko arriskuan daudenen artetik kentzea, hau da, epe luzean, Nafarroan iraungo duela bermatzeko moduko populaziora iristea.

5.- Zehaztu da espezie horren berreskurapen planerako aplikazio eremua? Zer baldintzatan? Lurralde eremu hori babes araubideren baten menpe dago?

Bai, berreskuratzeko planen oroit-idazki tekniko guztietan ageri da aplikazio eremuaren azalera. Guneak hurrenez hurren jarri dira, espezieak irauteko eta bizitzeko duten garrantziaren arabera.

6.- Zer eremu kritiko, lehentasunezko jarduketakoak eta banaketa potentzialekoak daude aztergai edo aztertzeke, espeziea “in situ” berreskuratzeari ekiteko? Eskatzen dira haietariko bakoitzaren izena, herria eta izan lezakeen azalera.

7.- Espezie horren berreskurapen planean, espeziearen beraren ezaugarrien ondorioz, zer xede eta jarduera beharko lirateke kontuan hartu nahitaez, zaintzeko, eremu kritikoak bermatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko?

Oinarri teknikoetan proposatu diren guneak eztabaidatu behar dira, eremu kritikotzat jo aurretik. Bien bitartean, balizko guneak kontrolatu egiten dira, aldian-aldian, espezieen bilakaera ezagutu eta baloratzeko asmoz, lurraldearen erabilera ezagunekin uztartzeko moduan.

8.- Nekazaritzari, ehizari, kirolari eta jokuei edo aisialdiari dagokienez, zer murrizketa ezarri beharko lirateke jarduera horien garapena espezie hori eta haren habitatak zaintzeko baldintzekin bat etortzeko?

Hasieran, egun diren erabilera guztiak mantendu ahalko dira planak ezarriko diren lurretan. Berreskuratze planen barruan finkatuko dira eremu eta aldi kritikoak, espezieak aldi batean uki ditzakeen erabilerei buruzko neurri babestaile, zuzentzaile eta orekatzaileak aurreikusi ahal izango direlarik.

9. Beharrezkoa da edo aurreikusten da espezie horren birkolonizazioa espeziea har lezaketen bestelako habitatetan? Zenbat ale beharko lirateke sartu, ustez?

Une honetan, ez dago daturik espeziearen balizko birsartzeari ekitea beharrezko egiten duenik.

10.- Berreskurapen planaren garapena espezie hori bizi dela dakigun ondoko Komunitateetara zabaltzen da edo horiek ukitzen ditu? Zer kontsulta eta koordinazio tresna ezarri asmo dira haiekin Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentutik? Eta Estatuko erakundeekin?

Estepako espezieak berreskuratzeko planen arloko koordinazioa Flora eta Fauna Batzordearen bitartez egiten da. Autonomi Elkarte guztiak daude ordezkatuta eta Ingurugiro Ministerioari dagozkio lehendakaritza eta idazkaritza. Harreman berezia dago Aragoi eta Gaztela-Leongo komunitateetako zerbitzu teknikoekin, horietan baitaude Espainiako estepa-alderik garrantzizkoenak.

11.- Espezie horren berreskurapen planak izan dezake finantzaketarik beste edozein entitate publiko edo pribatutatik, bai gure Komunitatean, bai kanpoan?

Berreskuratzeko planaren barruan sartu diren ekintzen ondorioz, proiekturen bat sor daiteke Europako Batasuneko LIFE programaren deialdietara aurkezteko moduan. Nekazaritza eta ingurugiroko zenbait neurri bat datoz planaren aurreikuspenekin.

12.- Ba ote dauka Nafarroako Gobernuak behin-behineko edo behin betiko egutegirik berreskurapen plana aztertu, prestatu, argitaratu eta abian jartzeko?

Ez. Aurtengo urtea bukatu baino lehen izango omen da prest.

13.- Ba ote du asmorik Nafarroako Gobernuak berreskurapen planak inola ukitzen dituen toki entitateekin aldez aurretik harremanik edo kontsultarik izateko? Eta espezie horren berreskurapen planak ukituriko elkargo, federazio eta bestelako taldeekin?

Planean aplikazio-eremua finkatu eta gero, Plana udal-dermioa eremu horren barruan duten toki entitateei jakinaraziko zaie.

Jendaurreko informazio-aldia hasi aurretik, Departamentuak badu asmoa berreskuratzeko planaren zirriborroa toki erakundeei eta ukitutako taldeei aurkeztu eta haiekin eztabaidatzeko.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 19an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

---

## “Ganga azpizuria” izeneko espezie babestuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Ganga azpizuria” izeneko espezie babestuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 22a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Ganga azpizuria” izeneko espezie babestuari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Zer azterketa, jarraipen eta jarduerak egin dute posible espezie hori arriskuan jartzen duten faktore nagusiak ezagutzea? Hurrengoak eskatzen dira: izena, jarduketen deskripzio laburra, egin dituen entitate, erakunde edo enpresa eta haietariko bakoitzaren aurrekontua.

Azterlanak:

• Nafarroako Hegoaldeko estepako hegaztiak, 1989. Egilea: Jesús Elósegui Aldasoro.

• Nafarroako estepako abifauna zaintzeko interesguneen inbentarioa eta kategorizazioa, 1995. Egileak: Carlos Astráin Massa, Amaia Echeverría Delgado eta Jesús Elósegui Aldasoro. Prezioa: 6.999.440 pezeta.

• Nafarroan arriskuan dauden ornodunen katalogoa, 1994. Doñanako estazio bilogikoa. C.S.I.C. Prezioa: 7.750.000 pezeta.

• Ganga azpizuria berreskuratzeko eta basoilo txikia zaintzeko plana, 1996. Egilea: Carlos Astráin Massa. Prezioa: 3.700.000 pezeta.

2.- Zenbat ale ditu espezie horrek gure Komunitatean? Zer azalera uste da haren natur habitatek gaurregun hartzen dutela?

400 eta 500 bitarte. Ezin da zehatz-mehatz esan espeziean hartzen duen azalera. Toki lau, leun eta zabaletan aurki daiteke, berezko estepalandaredia dagoenetan: larreak sastraka mehekin batera daudenetan, ontinareetan, ezkaidietan, espartzudietan eta, bakanago, uztondoetan, uzta eta gero berezko landarak hazten badira, batez ere. Ia-ia ez da ikusten laborea hazten ari den soroetan.

3.- Zer jardunbide garatu asmo du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hura berreskuratzeko behar diren jarduketak abian jarri arte? Zer jarduketalditan dago gaurregun espezie horren berreskurapen plana?

Urtero egiten du Departamentuak hegaztion jarraipen berezia, basazainekin eta laguntza teknikoekin.

Gaur egun, espezie hau berreskuratzeko planari buruzko Foru Dekretua prestatzeko oinarri teknikoak eginda daude.

4.- Zein da espezie horren berreskurapen planaren prestakuntzarekin lortu nahi den azkeneko helburua, galtzorian egoteko faktoreak zuzentzeko?

Espeziea galtzeko arriskuan daudenen artetik kentzea, hau da, epe luzean, Nafarroan iraungo duela bermatzeko moduko populaziora iristea.

5.- Zehaztu da espezie horren berreskurapen planerako aplikazio eremua? Zer baldintzatan? Lurralde eremu hori babes araubideren baten menpe dago?

Bai, berreskuratzeko planen oroit-idazki tekniko guztietan ageri da aplikazio eremuaren azalera. Guneak hurrenez hurren jarri dira, espezieak irauteko eta bizitzeko duten garrantziaren arabera.

6.- Zer eremu kritiko, lehentasunezko jarduketakoak eta banaketa potentzialekoak daude aztergai edo aztertzeke, espeziea “in situ” berreskuratzeari ekiteko? Eskatzen dira haietariko bakoitzaren izena, herria eta izan lezakeen azalera.

7.- Espezie horren berreskurapen planean, espeziearen beraren ezaugarrien ondorioz, zer xede eta jarduera beharko lirateke kontuan hartu nahitaez, zaintzeko, eremu kritikoak bermatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko?

Oinarri teknikoetan proposatu diren guneak eztabaidatu behar dira, eremu kritikotzat jo aurretik. Bien bitartean, balizko guneak kontrolatu egiten dira, aldian-aldian, espezieen bilakaera ezagutu eta baloratzeko asmoz, lurraldearen erabilera ezagunekin uztartzeko moduan.

8.- Nekazaritzari, ehizari, kirolari eta jokuei edo aisialdiari dagokienez, zer murrizketa ezarri beharko lirateke jarduera horien garapena espezie hori eta haren habitatak zaintzeko baldintzekin bat etortzeko?

Hasieran, egun diren erabilera guztiak mantendu ahalko dira planak ezarriko diren lurretan. Berreskuratze planen barruan finkatuko dira eremu eta aldi kritikoak, espezieak aldi batean uki ditzakeen erabilerei buruzko neurri babestaile, zuzentzaile eta orekatzaileak aurreikusi ahal izango direlarik.

9. Beharrezkoa da edo aurreikusten da espezie horren birkolonizazioa espeziea har lezaketen bestelako habitatetan? Zenbat ale beharko litzateke sartu, ustez?

Une honetan, ez dago daturik espeziearen balizko birsartzeari ekitea beharrezko egiten duenik.

10.- Berreskurapen planaren garapena espezie hori bizi dela dakigun ondoko Komunitateetara zabaltzen da edo horiek ukitzen ditu? Zer kontsulta eta koordinazio tresna ezarri asmo dira haiekin Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentutik? Eta Estatuko erakundeekin?

Estepako espezieak berreskuratzeko planen arloko koordinazioa Flora eta Fauna Batzordearen bitartez egiten da. Autonomi Elkarte guztiak daude ordezkatuta eta Ingurugiro Ministerioari dagozkio lehendakaritza eta idazkaritza. Harreman berezia dago Aragoi eta Gaztela-Leongo komunitateetako zerbitzu teknikoekin, horietan baitaude Espainiako estepa-alderik garrantzizkoenak.

11.- Espezie horren berreskurapen planak izan dezake finantzaketarik beste edozein entitate

publiko edo pribatutatik, bai gure Komunitatean, bai kanpoan?

Berreskuratzeko planaren barruan sartu diren ekintzen ondorioz, proiekturen bat sor daiteke Europako Batasuneko LIFE programaren deialdietara aurkezteko moduan. Nekazaritza eta ingurugiroko zenbait neurri bat datoz planaren aurreikuspenekin.

12.- Ba ote dauka Nafarroako Gobernuak behin-behineko edo behin betiko egutegirik berreskurapen plana aztertu, prestatu, argitaratu eta abian jartzeko?

Ez. Aurtengo urtea bukatu baino lehen izango omen da prest.

13.- Ba ote du asmorik Nafarroako Gobernuak berreskurapen planak inola ukitzen dituen toki entitateekin aldez aurretik harremanik edo kontsultarik izateko? Eta espezie horren berreskurapen planak ukituriko elkargo, federazio eta bestelako taldeekin?

Planean aplikazio-eremua finkatu eta gero, Plana udal-dermioa eremu horren barruan duten toki entitateei jakinaraziko zaie.

Jendaurreko informazio-aldia hasi aurretik, Departamentuak badu asmoa berreskuratzeko planaren zirriborroa toki erakundeei eta ukitutako taldeei aurkeztu eta haiekin eztabaidatzeko.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 19an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

---

## “Txori zezen arrunta” izeneko espezie babestuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Txori zezen arrunt” izeneko espezie babestuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 22a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Txori zezen arrunta” izeneko espezie babestuari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Zer azterketa, jarraipen eta jarduerak egin dute posible espezie hori arriskuan jartzen duten faktore nagusiak ezagutzea? Hurrengoak eskatzen dira: izena, jarduketen deskripzio laburra, egin dituen entitate, erakunde edo enpresa eta haietariko bakoitzaren aurrekontua.

Azterlanak:

Nafarroako hezeguneetan negu-pasa eta habiak egiten dituzten hegaztiei eta txori zezen arrunta berreskuratzeko planari buruzko azterlana, 1996. Egilea: Consultores en Biología de la Conservación, S.L. Prezioa: 3.908.000 pezeta.

2.- Zenbat ale ditu espezie horrek gure Komunitatean? Zer azalera uste da haren natur habitatek gaurregun hartzen dutela?

Habia egiteko lurralde bakarra hartzen du egun txori zezen arruntak: Pitillasko aintzira. Azken hamar urteotan zehar, beste zazpi tokitan antzeman ahal izan da, habia egiteko garaian, negu-pasan edo migrazioan.

3.- Zer jardunbide garatu asmo du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hura berreskuratzeko behar diren jarduketak abian jarri arte? Zer jarduketalditan dago gaurregun espezie horren berreskurapen plana?

Urtero egiten du Departamentuak hegaztion jarraipen berezia, basazainekin eta laguntza teknikoekin.

Gaur egun, espezie hau berreskuratzeko planari buruzko Foru Dekretua prestatzeko oinarri teknikoak eginda daude.

4.- Zein da espezie horren berreskurapen planaren prestakuntzarekin lortu nahi den azkeneko helburua, galtzorian egoteko faktoreak zuzentzeko?

Espeziea galtzeko arriskuan daudenen artetik kentzea, hau da, epe luzean, Nafarroan iraungo duela bermatzeko moduko populaziora iristea.

5.- Zehaztu da espezie horren berreskurapen planerako aplikazio eremua? Zer baldintzatan? Lurralde eremu hori babes araubideren baten menpe dago?

Bai, berreskuratzeko planen oroit-idazki tekniko guztietan ageri da aplikazio eremuaren azalera. Guneak hurrenez hurren jarri dira, espezieak irauteko eta bizitzeko duten garrantziaren arabera.

6.- Zer eremu kritiko, lehentasunezko jarduketakoak eta banaketa potentzialekoak daude aztergai edo aztertzeke, espeziea “in situ” berreskuratzeari ekiteko? Eskatzen dira haietariko bakoitzaren izena, herria eta izan lezakeen azalera.

7.- Espezie horren berreskurapen planean, espeziearen beraren ezaugarrien ondorioz, zer xede eta jarduera beharko lirateke kontuan hartu nahitaez, zaintzeko, eremu kritikoak bermatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko?

Oinarri teknikoetan proposatu diren guneak eztabaidatu behar dira, eremu kritikotzat jo aurretik. Bien bitartean, balizko guneak kontrolatu egiten dira, aldian-aldian, espezieen bilakaera ezagutu eta baloratzeko asmoz, lurraldearen erabilera ezagunekin uztartzeko moduan.

8.- Nekazaritzari, ehizari, kirolari eta jokuei edo aisialdiari dagokienez, zer murrizketa ezarri beharko lirateke jarduera horien garapena espezie hori eta haren habitatak zaintzeko baldintzekin bat etortzeko?

Hasieran, egun diren erabilera guztiak mantendu ahalko dira planak ezarriko diren lurretan. Berreskuratze planen barruan finkatuko dira eremu eta aldi kritikoak, espezieak aldi batean uki ditzakeen erabilerei buruzko neurri babestaile, zuzentzaile eta orekatzaileak aurreikusi ahal izango direlarik.

9. Beharrezkoa da edo aurreikusten da espezie horren birkolonizazioa espeziea har lezaketen bestelako habitatetan? Zenbat ale beharko lirateke sartu, ustez?

Une honetan, ez dago daturik espeziearen balizko birsartzeari ekitea beharrezko egiten duenik.

10.- Berreskurapen planaren garapena espezie hori bizi dela dakigun ondoko Komunitateetara zabaltzen da edo horiek ukitzen ditu? Zer kontsulta eta koordinazio tresna ezarri asmo dira haiekin Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentutik? Eta Estatuko erakundeekin?

Estepako espezieak berreskuratzeko planen arloko koordinazioa Flora eta Fauna Batzordearen bitartez egiten da. Autonomi Elkarte guztiak daude ordezkatuta eta Ingurugiro Ministerioari dagozkio lehendakaritza eta idazkaritza. Harreman berezia dago Aragoi eta Gaztela-Leongo komunitateetako zerbitzu teknikoekin, horietan baitaude Espainiako estepa-alderik garrantzizkoenak.

11.- Espezie horren berreskurapen planak izan dezake finantzaketarik beste edozein entitate publiko edo pribatutik, bai gure Komunitatean, bai kanpoan?

Berreskuratzeko planaren barruan sartu diren ekintzen ondorioz, proiekturen bat sor daiteke Europako Batasuneko LIFE programaren deialdietara aurkezteko moduan. Nekazaritza eta ingurugiroko zenbait neurri bat datoz planaren aurreikuspenekin.

12.- Ba ote dauka Nafarroako Gobernuak behin-behineko edo behin betiko egutegirik berreskurapen plana aztertu, prestatu, argitaratu eta abian jartzeko?

Ez. Aurtengo urtea bukatu baino lehen izango omen da prest.

13.- Ba ote du asmorik Nafarroako Gobernuak berreskurapen planak inola ukitzen dituen toki entitateekin aldez aurretik harremanik edo kontsultarik izateko? Eta espezie horren berreskurapen planak ukituriko elkargo, federazio eta bestelako taldeekin?

Planean aplikazio-eremua finkatu eta gero, Plana udal-dermioa eremu horren barruan duten toki entitateei jakinaraziko zaie.

Jendaurreko informazio-aldia hasi aurretik, Departamentuak badu asmoa berreskuratzeko planaren zirriborroa toki erakundeei eta ukitutako taldeei aurkeztu eta haiekin eztabaidatzeko.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 19an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

# “Igaraba” izeneko espezie babestuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Igaraba” izeneko espezie babestuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 22a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Igaraba” izeneko espezie babestuari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Zer azterketa, jarraipen eta jarduerak egin dute posible espezie hori arriskuan jartzen duten faktore nagusiak ezagutzea? Hurrengoak eskatzen dira: izena, jarduketen deskripzio laburra, egin dituen entitate, erakunde edo enpresa eta haietariko bakoitzaren aurrekontua.

Azterlanak:

• Igarabaren (Lutra lutra) distribuzioa Nafarroan. 1995eko azterketa eta 1970etiko bilakaera. Egileak: Santiago Palazón, Jordi Ruiz-Olmo eta Alfonso Senosiáin. 1996. Prezioa: 243.600 pezeta.

• Nafarroako igaraba (Lutra lutra) berreskuratzeko plana prestatzea, 1996. Egilea: Ugaztunak Zaindu eta Aztertzeko Espainiako Elkartea (S.E.C.E.M.), Malagako Unibertsitatea. Prezioa: 1.500.000 pezeta.

2.- Zenbat ale ditu espezie horrek gure Komunitatean? Zer azalera uste da haren natur habitatek gaurregun hartzen dutela?

Nafarroako ibaietan igarabaren aztarnak antzemateko azken azterketetan, 1995 eta 1996an alegia, Aragoa ibaian antzeman da, Esatik Caparrososora doan tartean, eta Ega ibaiko zati txiki batean. Nafarroako gainerako ibaietan ez da aztarnarik aurkitu.

3.- Zer jardunbide garatu asmo du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hura berreskuratzeko behar diren jarduketak abian jarri arte? Zer jarduketalditan dago gaurregun espezie horren berreskurapen plana?

Urtero egiten du Departamentuak igarabaren populazioaren jarraipen berezia, basazainekin eta laguntza teknikoekin.

Gaur egun, espezie hau berreskuratzeko planari buruzko Foru Dekretua prestatzeko oinarri teknikoak eginda daude.

4.- Zein da espezie horren berreskurapen planaren prestakuntzarekin lortu nahi den azkeneko helburua, galtzorian egoteko faktoreak zuzentzeko?

Espeziea galtzeko arriskuan daudenen artetik kentzea, hau da, epe luzean, Nafarroan iraungo duela bermatzeko moduko populaziora iristea.

5.- Zehaztu da espezie horren berreskurapen planerako aplikazio eremua? Zer baldintzatan? Lurralde eremu hori babes araubideren baten menpe dago?

Bai, berreskuratzeko planen oroit-idazki tekniko guztietan ageri da aplikazio eremuaren azalera. Guneak hurrenez hurren jarri dira, espezieak irauteko eta bizitzeko duten garrantziaren arabera.

6.- Zer eremu kritiko, lehentasunezko jarduketakoak eta banaketa potentzialekoak daude aztergai edo aztertzeke, espeziea “in situ” berreskuratzeari ekiteko? Eskatzen dira haietariko bakoitzaren izena, herria eta izan lezakeen azalera.

7.- Espezie horren berreskurapen planean, espeziearen beraren ezaugarrien ondorioz, zer xede eta jarduera beharko lirateke kontuan hartu nahitaez, zaintzeko, eremu kritikoak bermatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko?

Oinarri teknikoetan proposatu diren guneak eztabaidatu behar dira, eremu kritikotzat jo aurretik. Bien bitartean, balizko guneak kontrolatu egiten dira, aldian-aldian, espezieen bilakaera ezagutu eta baloratzeko asmoz, lurraldearen erabilera ezagunekin uztartzeko moduan.

8.- Nekazaritzari, ehizari, kirolari eta jokuei edo aisialdiari dagokienez, zer murrizketa ezarri beharko lirateke jarduera horien garapena espezie hori eta haren habitatak zaintzeko baldintzekin bat etortzeko?

Hasieran, egun diren erabilera guztiak mantendu ahalko dira planak ezarriko diren lurretan. Berreskuratze planen barruan finkatuko dira eremu eta aldi kritikoak, espezieak aldi batean uki ditzakeen erabilerei buruzko neurri babestaile, zuzentzaile eta orekatzaileak aurreikusi ahal izango direlarik.

9. Beharrezkoa da edo aurreikusten da espezie horren birkolonizazioa espeziea har lezaketen bestelako habitatetan? Zenbat ale beharko litzateke sartu, ustez?

Une honetan, ez dago daturik espeziearen balizko birsartzeari ekitea beharrezko egiten duenik.

10.- Berreskurapen planaren garapena espezie hori bizi dela dakigun ondoko Komunitateetara zabaltzen da edo horiek ukitzen ditu? Zer kontsulta eta korrdinazio tresna ezarri asmo dira haiekin Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentutik? Eta Estatuko erakundeekin?

Estepako espezieak berreskuratzeko planen arloko koordinazioa Flora eta Fauna Batzordearen bitartez egiten da. Autonomi Elkarte guztiak daude ordezkatuta eta Ingurugiro Ministerioari dagozkio lehendakaritza eta idazkaritza. Harreman berezia dago Aragoi eta Gaztela-Leongo komunitateetako zerbitzu teknikoekin, horietan baitaude Espainiako estepa-alderik garrantzizkoenak.

11.- Espezie horren berreskurapen planak izan dezake finantzaketarik beste edozein entitate publiko edo pribatutatik, bai gure Komunitatean, bai kanpoan?

Berreskuratzeko planaren barruan sartu diren ekintzen ondorioz, proiekturen bat sor daiteke Europako Batasuneko LIFE programaren deialdietara aurkezteko moduan. Nekazaritza eta ingurugiroko zenbait neurri bat datoz planaren aurreikuspenekin.

12.- Ba ote dauka Nafarroako Gobernuak behin-behineko edo behin betiko egutegirik berreskurapen plana aztertu, prestatu, argitaratu eta abian jartzeko?

Ez. Aurtengo urtea bukatu baino lehen izango omen da prest.

13.- Ba ote du asmorik Nafarroako Gobernuak berreskurapen planak inola ukitzen dituen toki entitateekin aldez aurretik harremanik edo kontsultarik izateko? Eta espezie horren berreskurapen planak ukituriko elkargo, federazio eta bestelako taldeekin?

Planean aplikazio-eremua finkatu eta gero, Plana udal-dermioa eremu horren barruan duten toki entitateei jakinaraziko zaie.

Jendaurreko informazio-aldia hasi aurretik, Departamentuak badu asmoa berreskuratzeko planaren zirriborroa toki erakundeei eta ukitutako taldeei aurkeztu eta haiekin eztabaidatzeko.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 19an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

---

## “Eper grisa” izeneko espezie babestuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Eper grisa” izeneko espezie babestuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 22a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Eper grisa” izeneko espezie babestuari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Zer azterketa, jarraipen eta jarduerak egin dute posible espezie hori arriskuan jartzen duten faktore nagusiak ezagutzea? Hurrengoak eska-

tzen dira: izena, jarduketen deskripzio laburra, egin dituen entitate, erakunde edo enpresa eta haietariko bakoitzaren aurrekontua.

Azterlanak:

Orain ari dira egiten eper grisaren egoerari buruzko azterlana Nafarroan. "Lagopodo zuria (Lagopus mutus pyrenaicus) eta Eper grisa (Perdix perdix hispaniensis) Nafarroan berreskuratzeko planendako faktore demografikoen azterketa eta oinarrizko dokumentazioa" izeneko azterlana, lehiaketa publikoaren bidez esleitu zaio Carmelo Fernández León jaunari. Aurreikusitako gastua 4.130.000 pta. da (631/1996 Foru Agindua). Azterlanaren emaitzak 1997ko bukaeran izango ditugu eskura.

1996ko abenduan aurkeztu dute "Eper grisak ugaltzeko aldian duen habitataren toki distribuzioa eta erabilera"ri buruzko azterlanaren zati baten aurrerakina. Zentsua eta banaketari buruzko datuak behin-behinekoak dira oraindik eta udari baino ez dagozkio. Azterlanaren azken oroit-idazkian sartuko da Nafarroako eper grisa berreskuratzeko planaren aurreko testua.

2.- Zenbat ale ditu espezie horrek gure Komunitatean? Zer azalera uste da haren natur habitatek gaurregun hartzen dutela?

Ez dakigu zehatz-mehatz Nafarroako eper grisaren ugaltze- eta negu-zentsua zein den. Aurreko datuen arabera (CEAN 1993) Nafarroako eper grisaren populazioa ez da 20-30 ale baino gehiago izango. Hala ere, egiten ari diren azterlanaren emaitzen arabera, badirudi piska bat gehiago ere badirela, espezieak orain arte ezagutzen ez ziren toki batzuetan ere ageri delako, erlikia bezala bada ere.

3.- Zer jardunbide garatu asmo du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hura berreskuratzeko behar diren jarduketak abian jarri arte? Zer jarduketalditan dago gaurregun espezie horren berreskurapen plana?

4.- Zein da espezie horren berreskurapen planaren prestakuntzarekin lortu nahi den azkeneko helburua, galtzorian egoteko faktoreak zuzentzeko?

5.- Zehaztu da espezie horren berreskurapen planerako aplikazio eremua? Zer baldintzatan? Lurralde eremu hori babes araubideren baten menpe dago?

6.- Zer eremu kritiko, lehentasunezko jarduketakoak eta banaketa potentzialekoak daude aztergai edo aztertzeke, espeziea "in situ" berreskuratzeari ekiteko? Eskatzen dira haietariko bakoitzaren izena, herria eta izan lezakeen azalera.

7.- Espezie horren berreskurapen planean, espeziearen beraren ezaugarrien ondorioz, zer xede eta jarduera beharko lirateke kontuan hartu nahitaez, zaintzeko, eremu kritikoak bermatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko?

8.- Nekazaritzari, ehizari, kirolari eta jokuei edo aisialdiari dagokienez, zer murrizketa ezarri beharko lirateke jarduera horien garapena espezie hori eta haren habitatak zaintzeko baldintzekin bat etortzeko?

9.- Beharrezkoa da edo aurreikusten da espezie horren birkolonizazioa espeziea har lezaketen bestelako habitatetan? Zenbat ale beharko lirateke sartu, ustez?

10.- Berreskurapen planaren garapena espezie hori bizi dela dakigun ondoko Komunitateetara zabaltzen da edo horiek ukitzen ditu? Zer kontsulta eta koordinazio tresna ezarri asmo dira haiekin Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentutik? Eta Estatuko erakundeekin?

11.- Espezie horren berreskurapen planak izan dezake finantzaketarik beste edozein entitate publiko edo pribatutatik, bai gure Komunitatean, bai kanpoan?

12.- Ba ote dauka Nafarroako Gobernuak behin-behineko edo behin betiko egutegirik berreskurapen plana aztertu, prestatu, argitaratu eta abian jartzeko?

13.- Ba ote du asmorik Nafarroako Gobernuak berreskurapen planak inola ukitzen dituen toki entitateekin aldez aurretik harremanik edo kontsultarik izateko? Eta espezie horren berreskurapen planak ukituriko elkargo, federazio eta bestelako taldeekin?

Planean aplikazio-eremua finkatu eta gero, Plana udal-dermioa eremu horren barruan duten toki entitateei jakinaraziko zaie.

1996ko ekainean esleitu zen azterlanaren emaitzen zain dago Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua. 1997ko abenduan izango ditugu eskura.

Aipatu azterlanak eper grisaren populazioaren benetako egoera aztertuko du gure Komunitatean eta berreskuratzeko plana proposatuko, hurrengoak hartuko dituelarik: helburua eta xedeak, iraunaldia, ezarpen eremua, eremu eta aldi kritikoak finkatzea, jarraipen jarduerak, ikerketa, zaintza eta zabalkundea, eta jarduketen urteko programa

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 18an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

---

## "Bechstein saguzarra" izeneko espezie babestuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak "Bechstein saguzarra" izeneko espezie babestuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 22a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak "Bechstein saguzarra" izeneko espezie babestuari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Zer azterketa, jarraipen eta jarduerak egin dute posible espezie hori arriskuan jartzen duten faktore nagusiak ezagutzea? Hurrengoak eskatzen dira: izena, jarduketen deskripzio laburra, egin dituen entitate, erakunde edo enpresa eta haietariko bakoitzaren aurrekontua.

Doktore-tesi bat egin zen (Nafarroako kiropteroen banaketa eta fenologia, Juan Tomás Alcalde) 1989-1995 urteetan. Nafarroan ziren espezieei buruzko datuak biltzeko aukera eman zuen eta horietako bakoitzarendako mehatxu nagusiei antzemateko. Lana egiteko, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiak ikertzaileak prestatzeko beka bat eman zuen hiru urte eta erdiz.

1996an laginketa berria egin da eta saguzar honi buruz datu eguneratuak ditugu. Nafarroan galtzeko zorian diren saguzarrak berreskuratzeko planen zirriborroak prestatzearen barruan egin da aipatu laginketa. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Juan Tomás Alcalderi eman dio lana egiteko agindua (aurrekontua: 1.612.000 pezeta)

2.- Zenbat ale ditu espezie horrek gure Komunitatean? Zer azalera uste da haren natur habitatek gaurregun hartzen dutela?

Ez dakigu zenbat ale dauden. Badakigu ugaltzeko kolonia bat galdu egin dela eta eme ernari bakarra harrapatu ahal izan da, beraz, ugaltzeko talde bat badagoela frogatuta dago. Espezie honek neurri txikiko koloniak egiten ditu, 20 eme baino gutxiagokoak, eskuarki. Erabiltzen duten habitataren azalera ere ez dakigu zein den.

3.- Zer jardunbide garatu asmo du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hura berreskuratzeko behar diren jarduketak abian jarri arte? Zer jarduketalditan dago gaurregun espezie horren berreskurapen plana?

Bechstein saguzarra berreskuratzeko planaren zirriborroa egiteko agindu da. Behin-behineko plana prestaturik dago jada eta Ingurugiro; Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan aztertzen ari dira, berreskuratze plan bezala ofizialki izapidatu aurretik.

4.- Zein da espezie horren berreskurapen planaren prestakuntzarekin lortu nahi den azkeneko helburua, galtzorian egoteko faktoreak zuzentzeko?

Azkeneko helburua da espeziearen populazioa, babeslekuak eta habitata egun mehatxatzen dutenak kendu eta espeziea baldintza egonkorretan eta arriskutik kanpo mantentzea.

5.- Zehaztu da espezie horren berreskurapen planerako aplikazio eremua? Zer baldintzatan? Lurralde eremu hori babes araubideren baten menpe dago?

Bechstein saguzarra berreskuratzeko planaren lurralde eremua Nafarroa guztia da, Nafarroa guztian zehar barreiatzen direlako espeziearendako egoki izan daitezkeen habitatak.

6.- Zer eremu kritiko, lehentasunezko jarduketakoak eta banaketa potentzialekoak daude aztergai edo aztertzeke, espeziea “in situ” berreskuratzeari ekiteko? Eskatzen dira haietariko bakoitzaren izena, herria eta izan lezakeen azalera.

Lehentasuna emango zaien eremu kritikoak espeziea bizi den oihan helduak izango dira. Oraingoz Orgiko basoa (Lizaso, 80 Ha) azpimarra daiteke, kumedun kolonia babesten baita han. Alde hori naturgune babestuen sarearen baitan dago egun, aisiarako natur eremu izendatu baitute. Dena den, gehiago arakatu behar da oraindik alde egokietan (beste oihan klimatiko batzuetan).

7.- Espezie horren berreskurapen planean, espeziearen beraren ezaugarrien ondorioz, zer xede eta jarduera beharko lirateke kontuan hartu nahitaez, zaintzeko, eremu kritikoak bermatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko?

Zaintzaren helburuak hauexek dira: koloniak babesa hartzen duten tokietan dauden mehatxuak kentzea, Bechstein saguzarra aritzen den habitaten iraupena ziurtatzea, espeziearen ugalketa eta beste toki batzuetara hedatzea bultzatzea.

Horretarako jarduerak: aleak pausatzen diren babeslekuen zainketa fisikoa eta legala, babesleku horiek kontuan hartzeko irizpidetzat sartzea ingurugiro eraginari buruzko txosten edo ebaluazioetan, espeziearendako habitat eta babesleku izan daitezkeenen baldintzak aztertzea eta egurrezko aterpe-kutxak paratzea baso batzuetan, zulorik ezari aurre egiteko.

8.- Nekazaritzari, ehizari, kirolari eta jokuei edo aisialdiari dagokienez, zer murrizketa ezarri beharko lirateke jarduera horien garapena espezie hori eta haren habitatak zaintzeko baldintzekin bat etortzeko?

Ugaltzen ari diren koloniak dauden tokietan zuhaitzak botatzea galarazi beharko litzateke. Beharrezko da, baita, baso horietan homeotermoendako biozida pozoitsuekin egin daitezkeen tratamenduak saihestea.

9. Beharrezkoa da edo aurreikusten da espezie horren birkolonizazioa espeziea har lezaketen bestelako habitatetan? Zenbat ale beharko lirateke sartu, ustez?

Ez dago alerik sartzeko asmorik.

10.- Berreskurapen planaren garapena espezie hori bizi dela dakigun ondoko Komunitateetara zabaltzen da edo horiek ukitzen ditu? Zer kontsulta eta koordinazio tresna ezarri asmo dira haiekin Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentutik? Eta Estatuko erakundeekin?

Berreskuratzeko plana ez da beste elkarteetara hedatzen, inguruko elkarteekiko lankidetza aurreikusi arren, informazio gehiago bildu eta Bechstein saguzarraren populazioen babes eraginkorragoa lortzeko.

11.- Espezie horren berreskurapen planak izan dezake finantzaketarik beste edozein entitate publiko edo pribatutatik, bai gure Komunitatean, bai kanpoan?

Berreskurapen planak ez du bestelako finantzaketarik, oraingoz behintzat.

12.- Ba ote dauka Nafarroako Gobernuak behin-behineko edo behin betiko egutegirik berreskurapen plana aztertu, prestatu, argitaratu eta abian jartzeko?

Berreskuratze planaren zirriborroa eginda dago eta hurrengo hilabeteetan onetsi nahi da, jendaurrean jarri eta Nafarroako Ingurugiroaren Kontseiluak txostena eman ondoren.

13.- Ba ote du asmorik Nafarroako Gobernuak berreskurapen planak inola ukitzen dituen toki entitateekin aldez aurretik harremanik edo kontsultarik izateko? Eta espezie horren berreskurapen planak ukituriko elkargo, federazio eta bestelako taldeekin?

Planean aplikazio-eremua finkatu eta gero, Plana udal-dermioa eremu horren barruan duten toki entitateei jakinaraziko zaie.

Jendaurrean jartzeko izapidean jarriko gara harremanetan, beharrezkotzat jotzen badugu, espeziea pausatzen den gunetako toki entitateekin, berreskuratze planak ukitzen dituenekin, beraz.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 18an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

# “Ferra-saguzar mediterraniarra” izeneko espezie babestuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Ferra-saguzar mediterraniarr” izeneko espezie babestuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 22a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Ferra-saguzar mediterraniarra” izeneko espezie basbestuari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Zer azterketa, jarraipen eta jarduerak egin dute posible espezie hori arriskuan jartzen duten faktore nagusiak ezagutzea? Hurrengoak eskatzen dira: izena, jarduketen deskripzio laburra, egin dituen entitate, erakunde edo enpresa eta haietariko bakoitzaren aurrekontua.

Doktore-tesi bat egin zen (Nafarroako kiropteroen banaketa eta fenologia, Juan Tomás Alcalde) 1989-1995 urteetan. Nafarroan ziren espezieei buruzko datuak biltzeko aukera eman zuen eta horietako bakoitzarendako mehatxu nagusiei antzemateko. Lana egiteko, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiak ikertzaileak prestatzeko beka bat eman zuen hiru urte eta erdiz.

Arriskuan dauden espezieen Nafarroako katalogoak ere argitzen ditu saguzar espezie honen populazioek jasotzen dituzten mehatxurik behinenak.

1996an laginketa berria egin da eta saguzar honi buruzko datu eguneratuak ditugu. Nafarroan galtzeko zorian diren saguzarrak berreskuratzeko planen zirriborroak prestatzearen barruan egin da aipatu laginketa. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Juan Tomás Alcalderi eman dio lana egiteko agindua (aurrekontua: 1.612.000 pezeta)

2.- Zenbat ale ditu espezie horrek gure Komunitatean? Zer azalera uste da haren natur habitatek gaurregun hartzen dutela?

Ugaltzeko bi kolonia besterik ez daude, guztira, 160 eme heldu, gutxi gorabehera. Hondatutako eliza zahar batetan eta jende gutxi joaten den monastegi batetan bizi dira; ez dakigu aritzen diren habitatak zer azalera hartzen duen. Hauxe gaineratu behar da: ugaltzeko gai ez diren aleak ehun baino gutxiago direla.

Saguzarrok iraungo badute, ugaltzeko koloniei eutsi behar zaie, ale kopurua bera baino askoz interesgarriago eta esanguratsuago baitira.

3.- Zer jardunbide garatu asmo du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hura berreskuratzeko behar diren jarduketak abian jarri arte? Zer jarduketalditan dago gaurregun espezie horren berreskurapen plana?

Ferra-saguzar mediterraniarra berreskuratzeko planaren zirriborroa egitea agindu da. Behin-behineko plana prestaturik dago jada eta Ingurugiro; Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan aztertzen ari dira, berreskuratze plan bezala ofizialki izapidatu aurretik.

4.- Zein da espezie horren berreskurapen planaren prestakuntzarekin lortu nahi den azkeneko helburua, galtzorian egoteko faktoreak zuzentzeko?

Azkeneko helburua da espeziearen populazioa, babeslekuak eta habitata egun mehatxatzen dituztenak kentzea.

5.- Zehaztu da espezie horren berreskurapen planerako aplikazio eremua? Zer baldintzatan? Lurralde eremu hori babes araubideren baten menpe dago?

Ferra-saguzar mediterraniarra berreskuratzeko planaren lurralde eremua Nafarroa guztia da, Nafarroa guztian zehar aurkitu direlako aleak.

6.- Zer eremu kritiko, lehentasunezko jarduketakoak eta banaketa potentzialekoak daude aztergai edo aztertzeke, espeziea “in situ” berreskuratzeari ekiteko? Eskatzen dira haietariko bakoitzaren izena, herria eta izan lezakeen azalera.

Lehentasuna emango zaien eremu kritikoak aleek babeslekutzat hartu dituzten kobazulo eta

eraikinak izango dira. Oraindik ez dakigu zer azalera hartuko duten, baina txikia izango da, edonola ere.

7.- Espezie horren berreskurapen planean, espeziearen beraren ezaugarrien ondorioz, zer xede eta jarduera beharko lirateke kontuan hartu nahitaez, zaintzeko, eremu kritikoak bermatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko?

Zaintzaren helburuak hauexek dira: koloniak babesa hartzen duten tokietan dauden mehatxuak kentzea, Ferra-saguzar mediterraniarra aritzen den habitaten iraupena ziurtatzea, espeziea hedatzea eta ale bakanak ikusi diren tokietan koloniak sortzea bultzatzea.

Horretarako jarduerak: aleak pausatzen diren babeslekuen zainketa fisikoa eta legala, babesleku horiek kontuan hartzeko irizpidetzat sartzea ingurugiro eraginari buruzko txosten edo ebaluazioetan, eta espeziearendako habitat eta babesleku izan daitezkeenen baldintzak aztertzea.

8.- Nekazaritzari, ehizari, kirolari eta jokuei edo aisialdiari dagokienez, zer murrizketa ezarri beharko lirateke jarduera horien garapena espezie hori eta haren habitatak zaintzeko baldintzekin bat etortzeko?

Ferra-saguzar mediterraniarrak ezkutatzen diren aterpeetara jenderik sartzea galarazi beharko litzateke. Espezie honetako aleak gordetzen dituzten eraikinak zaharberritzeko lanik egitea ere ez da komeni, eraikuntzatik joaten diren arte, behintzat; inolaz ere ez litzateke egurra tratatu behar organokloratuekin. Kolonien babeslekuen inguruen funtsezko aldaketa ekarriko duten obrak ere galarazi behar dira eta biozidekin egindako tratamenduak.

9. Beharrezkoa da edo aurreikusten da espezie horren birkolonizazioa espeziea har lezaketen bestelako habitatetan? Zenbat ale beharko litzateke sartu, ustez?

Ez dago alerik sartzeko asmorik.

10.- Berreskurapen planaren garapena espezie hori bizi dela dakigun ondoko Komunitateetara zabaltzen da edo horiek ukitzen ditu? Zer kontsulta eta koordinazio tresna ezarri asmo dira haiekin Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentutik? Eta Estatuko erakundeekin?

Berreskuratzeko plana ez da beste elkarteetara hedatzen, inguruko elkarteekiko lankidetza aurreikusi arren, informazio gehiago bildu eta gure eskualdetik kanpo ateratzen diren populazioen babes eraginkorragoa lortzeko.

11.- Espezie horren berreskurapen planak izan dezake finantzaketarik beste edozein entitate publiko edo pribatutatik, bai gure Komunitatean, bai kanpoan?

Berreskurapen planak ez du bestelako finantzaketarik, oraingoz behintzat.

12.- Ba ote dauka Nafarroako Gobernuak behin-behineko edo behin betiko egutegirik berreskurapen plana aztertu, prestatu, argitaratu eta abian jartzeko?

Berreskuratze planaren zirriborroa eginda dago eta hurrengo hilabeteetan onetsi nahi da, jendaurrean jarri eta Nafarroako Ingurugiroaren Kontseiluak txostena eman ondoren.

13.- Ba ote du asmorik Nafarroako Gobernuak berreskurapen planak inola ukitzen dituen toki entitateekin aldez aurretik harremanik edo kontsultarik izateko? Eta espezie horren berreskurapen planak ukituriko elkargo, federazio eta bestelako taldeekin?

Planean aplikazio-eremua finkatu eta gero, Plana udal-dermioa eremu horren barruan duten toki entitateei jakinaraziko zaie.

Jendaurrean jartzeko izapidean jarriko gara harremanetan, beharrezkotzat jotzen badugu, espeziea pausatzen den gunetako toki entitateekin, berreskuratze planak ukitzen dituenekin, beraz.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 18an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

# “Arratoi-belarri txikia” izeneko espezie babestuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Arratoi-belarri txikia” izeneko espezie babestuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 22a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Arratoi-belarri txikia” izeneko espezie babestuari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Zer azterketa, jarraipen eta jarduerak egin dute posible espezie hori arriskuan jartzen duten faktore nagusiak ezagutzea? Hurrengoak eskatzen dira: izena, jarduketen deskripzio laburra, egin dituen entitate, erakunde edo enpresa eta haietariko bakoitzaren aurrekontua.

Doktore-tesi bat egin zen (Nafarroako kiropteroen banaketa eta fenologia, Juan Tomás Alcalde) 1989-1995 urteetan. Nafarroan ziren espezieei buruz datuak biltzeko aukera eman zuen eta horietako bakoitzarendako mehatxu nagusiei antzemateko. Lana egiteko, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiak ikertzaileak prestatzeko beka bat eman zuen hiru urte eta erdiz.

Arriskuan dauden espezieen Nafarroako katalogoak ere argitzen ditu saguzar espezie honen populazioek jasotzen dituzten mehatxurik behinenak.

1996an laginketa berria egin da eta saguzar honi buruzko datu eguneratuak ditugu. Nafarroan galtzeko zorian diren saguzarrak berreskuratzeko planen zirriborroak prestatzearen barruan egin da aipatu laginketa. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Juan Tomás Alcalderi eman dio lana egiteko agindua (aurrekontua: 1.612.000 pezeta)

2.- Zenbat ale ditu espezie horrek gure Komunitatean? Zer azalera uste da haren natur habitatek gaurregun hartzen dutela?

Ugaltzeko kolonia bakarra baino ez dago, guztira, 150 eme heldu, gutxi gorabehera. Kobazulo txiki batean bizi dira. Ale bakanak edota talde txikietan (50 ale baino gutxiagoa) ere aurkitu dira; ez dakigu aritzen diren habitatak zer azalera hartzen duen.

3.- Zer jardunbide garatu asmo du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hura berreskuratzeko behar diren jarduketak abian jarri arte? Zer jarduketalditan dago gaurregun espezie horren berreskurapen plana?

Arratoi-belarri txikia berreskuratzeko planaren zirriborroa egitea agindu da. Behin-behineko plana idatzita dago jada eta Ingurugiro; Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan aztertzen ari dira, berreskuratze plan bezala ofizialki izapidatu aurretik.

4.- Zein da espezie horren berreskurapen planaren prestakuntzarekin lortu nahi den azkeneko helburua, galtzorian egoteko faktoreak zuzentzeko?

Azkeneko helburua da espeziearen populazioa, babeslekuak eta habitata egun mehatxatzen dituztenak kentzea.

5.- Zehaztu da espezie horren berreskurapen planerako aplikazio eremua? Zer baldintzatan? Lurralde eremu hori babes araubideren baten menpe dago?

Espezie honen berreskuratze-planaren lurralde eremua Nafarroa guztia da, Nafarroa guztian zehar aurkitu direlako aleak.

6.- Zer eremu kritiko, lehentasunezko jarduketakoak eta banaketa potentzialekoak daude aztergai edo aztertzeke, espeziea “in situ” berreskuratzeari ekiteko? Eskatzen dira haietariko bakoitzaren izena, herria eta izan lezakeen azalera.

Lehentasuna emango zaien eremu kritikoak aleek babeslekutzat hartu dituzten kobazulo eta eraikinak izango dira. Oraindik ez dakigu zer azalera hartuko duten, baina txikia izango da, edonola ere.

7.- Espezie horren berreskurapen planean, espeziearen beraren ezaugarrien ondorioz, zer xede eta jarduera beharko lirateke kontuan hartu

nahitaez, zaintzeko, eremu kritikoak bermatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko?

Zaintzaren helburuak hauexek dira: koloniak babesa hartzen duten tokietan dauden mehatxuak kentzea, Arratoi-belarri txikia aritzen den habitaten iraupena ziurtatzea, espeziea hedatzea eta ale bakanak ikusi diren tokietan koloniak sortzea bultzatzea.

Horretarako jarduerak: aleak pausatzen diren babeslekuen zainketa fisikoa eta legala, babesleku horiek kontuan hartzeko irizpidetzat sartzea ingurugiro eraginari buruzko txosten edo ebaluazioetan, eta espeziearendako habitat eta babesleku izan daitezkeenen baldintzak aztertzea.

8.- Nekazaritzari, ehizari, kirolari eta jokuei edo aisialdiari dagokienez, zer murrizketa ezarri beharko lirateke jarduera horien garapena espezie hori eta haren habitatak zaintzeko baldintzekin bat etortzeko?

Arratoi-belarri txikiak ezkutatzen diren aterpeetara jenderik sartzea galarazi beharko litzateke. Espezie honetako aleak gordetzen dituzten eraikinak zaharberritzeko lanik egitea ere ez da komeni, eraikuntzatik joaten diren arte, behintzat; inolaz ere ez litzateke egurra tratatu behar organokloratuekin. Kolonien babeslekuen inguruen funtsezko aldaketa ekarriko duten obrak ere galarazi behar dira eta biozidekin egindako tratamenduak.

9. Beharrezkoa da edo aurreikusten da espezie horren birkolonizazioa espeziea har lezaketen bestelako habitatetan? Zenbat ale beharko lirateke sartu, ustez?

Ez dago alerik sartzeko asmorik.

10.- Berreskurapen planaren garapena espezie hori bizi dela dakigun ondoko Komunitateetara zabaltzen da edo horiek ukitzen ditu? Zer kontsulta eta koordinazio tresna ezarri asmo dira haiekin Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentutik? Eta Estatuko erakundeekin?

Berreskuratzeko plana ez da beste elkarteetara hedatzen, inguruko elkarteekiko lankidetza aurreikusi arren, informazio gehiago bildu eta gure eskualdetik kanpo ateratzen diren populazioen babes eraginkorragoa lortzeko.

11.- Espezie horren berreskurapen planak izan dezake finantzaketarik beste edozein entitate publiko edo pribatutatik, bai gure Komunitatean, bai kanpoan?

Berreskurapen planak ez du bestelako finantzaketarik, oraingoz behintzat.

12.- Ba ote dauka Nafarroako Gobernuak behin-behineko edo behin betiko egutegirik berreskurapen plana aztertu, prestatu, argitaratu eta abian jartzeko?

Berreskuratze planaren zirriborroa eginda dago eta hurrengo hilabeteetan onetsi nahi da, jendaurrean jarri eta Nafarroako Ingurugiroaren Kontseiluak txostena eman ondoren.

13.- Ba ote du asmorik Nafarroako Gobernuak berreskurapen planak inola ukitzen dituen toki entitateekin aldez aurretik harremanik edo kontsultarik izateko? Eta espezie horren berreskurapen planak ukituriko elkargo, federazio eta bestelako taldeekin?

Planean aplikazio-eremua finkatu eta gero, Plana udal-dermioa eremu horren barruan duten toki entitateei jakinaraziko zaie.

Jendaurrean jartzeko izapidean jarriko gara harremanetan, beharrezkotzat jotzen badugu, espeziea pausatzen den gunetako toki entitateekin, berreskuratze planak ukitzen dituenekin, beraz.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 18an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

# “Okil ertaina” izeneko espezie babestuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Okil ertaina” izeneko espezie babestuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 22a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Okil ertaina” izeneko espezie babestuari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Zer azterketa, jarraipen eta jarduerak egin dute posible espezie hori arriskuan jartzen duten faktore nagusiak ezagutzea? Hurrengoak eskatzen dira: izena, jarduketen deskripzio laburra, egin dituen entitate, erakunde edo enpresa eta haietariko bakoitzaren aurrekontua.

Bi azterlan egin dira gaur egunera arte, okil ertainaren eskualde-egoera ezagutzeko eta balizko zaintze-neurriak abiarazteko. Biologia doktorea den Carmelo Fernández León jaunaren zuzendaritzapean egin dira: “Okil beltzaren (Dryocopus martius), okil ertainaren (Dendrocopos medius) eta okil gibelnabarraren (Dendrocopos leucotos) habitataren korologia eta xehetasunak Nafarroan” (Fernández, 1992); 0056/1992 Foru Aginduz kontratatu zen, 1.776.225 pezetako aurrekontuarekin. Eta “Nafarroako okil ertaina (Dendrocopos medius) berreskuratzeko plana” (Fernández eta Azkona, 1996); 2715/1996 ebazpenaren bidez kontratatu zen, 1.400.000 pezetako gastuarekin.

1992an egindako azterlana (Fernández, 1992) lehen hurbilketa da Nafarroako okilen komunitatera, bigarrenak (Fernández eta Azkona, 1996), Nafarroako okil ertaina babesteko oinarri ekologikoak sakon ikertu, egungo egoera aztertu eta gure Komunitatean erabili beharreko zaintze-estrategia ezarri du. Azken horretan, (Fernández eta Azkona, 1996), Nafarroako okil ertaina berreskuratzeko planaren proiektua ere sartu da. Hurrengo erantzunetan aipatuko dugu.

2.- Zenbat ale ditu espezie horrek gure Komunitatean? Zer azalera uste da haren natur habitatek gaurregun hartzen dutela?

Egindako azterlanak oinarritzat harturik, egun Nafarroan okil ertainaren populazioak 15-20 bikote egiten du. Populazio erreliktu txiki hori sakabanaturik dago, gainera, ondo kontserbatu diren hariztietan, Sakanan (Monte Hermoso) eta Ameskoan (Eulate, Aranaratxe eta San Martin).

3.- Zer jardunbide garatu asmo du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hura berreskuratzeko behar diren jarduketak abian jarri arte? Zer jarduketalditan dago gaurregun espezie horren berreskurapen plana?

Ingurugiro; Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak badu okil ertaina berreskuratzeko plana laster onesteko asmoa, Nafarroako Ingurugiroaren Kontseiluak oneritzia eman eta jendaurrean jarri ondoren. Okil ertaina berreskuratzeko behin-behineko plana prestaturik dago jada (Fernández eta Azkona, 1996), eta Departamentuan aztertzen ari dira.

4.- Zein da espezie horren berreskurapen planaren prestakuntzarekin lortu nahi den azkeneko helburua, galtzorian egoteko faktoreak zuzentzeko?

Nafarroako okil ertaina berreskuratzeko planaren helburua da espeziearen egungo populazioa eta balizko habitata kontserbatu eta gehitzea, gure eskualdean, harik eta epe luzeko bideragarritasun genetiko eta demografikoa bermatuko duen ale-kopurua eta banatze-eremua iritsi arte.

5.- Zehaztu da espezie horren berreskurapen planerako aplikazio eremua? Zer baldintzatan? Lurralde eremu hori babes araubideren baten menpe dago?

Berreskuratze-planaren proiektuaren arabera, aplikazio eremua hauxe da: egungo edo arestiko zehaztasun ekologikoak direla eta, Nafarroan okil ertainen populazioa hartzen duen edo etorkizun hurbilean har dezakeen eskualdea.

Behin-behineko berreskuratze-planaren aplikazio eremuak hedatze-eskualde oro hartzen du, baldin eta, habitata hobetuz gero, etorkizunean espeziea hartzeko gai bihur badaiteke. Aplikazio eremu zabal horretan dibulgazio eta ugaltzeko

gune berriak bilatzeko jarduketak baino ez lirateke burutuko, eta okil ertainak birkoloniza ditzakeen hariztietan, kontserbazio-neurri leunak. Kontserbazio-neurri zorrotzak, alegia, giza-jarduketak gehiago uki dezaketenak, interes bereziko guneetara mugatuko lirateke.

Aguilar de Codés, Azuelo, Torralba, Mirafuentes, Mendaza, Antzin, Murieta, Metauten, Allinibar, Deierri, Gesalatz, Jaitz, Bidaurreta, Etxarri, Ziritza, Etxauri, Oltza, Iruñea, Eguesibar, Lizoain, Longida, Urraulgoiti, Romanzado eta Esako udal dermioen hegoaldeko mugari jarraiki, mendebaldetik ekialdera doan lerrotik iparraldera dagoen foru komunitatea hartzen du okil ertainaren Nafarroako banaketa-eremu potentzialak.

Egun okil ertaina bizi den oihanek ez dute inongo lege babesik Nafarroan.

6.- Zer eremu kritiko, lehentasunezko jarduketakoak eta banaketa potentzialekoak daude aztergai edo aztertzeke, espeziea “in situ” berreskuratzeari ekiteko? Eskatzen dira haietariko bakoitzaren izena, herria eta izan lezakeen azalera.

Hona berreskuratze-planaren behin-behineko idazketak zer dioen banaketa potentzialeko eremuoi buruz: lehentasunekotzat joko da okil ertaina ugaltzen dela egiaztatu den alde oro. Hasiera baten: 1) Olaldeko hariztia (Orotz-Betelu); 2) Monte Hermosoko hariztia (Ergoiena ibarra), eta 3) Aranaratxe, Eulate eta San Martingo herri basoetako hariztiak (Ameskoagoien eta Ameskoabarren).

Oraingoz ez dago zehatz-mehatz mugatuta okil ertainak eskualde horietan hartzen duen aldea. Ondorioz, ez dugu eremu kritikoon mugen eta azaleraren berri.

7.- Espezie horren berreskurapen planean, espeziearen beraren ezaugarrien ondorioz, zer xede eta jarduera beharko lirateke kontuan hartu nahitaez, zaintzeko, eremu kritikoak bermatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko?

Okil ertaina berreskuratzeko planaren behin-behineko prestakuntzak hiru jarduketa-mota ezarri ditu: a) habitata kontserbatu eta hobetzeko jarduketak, b) populazioak ikertu eta kontrolatzeko jarduketak, eta c) zabalkunderako eta iritzi publikoa sentikortzeko jarduketak.

Habitata kontserbatu eta hobetzeko jarduketen artean:

– Oihanzaintzari buruzko oinarrizko neurriak ezartzea, berreskuratze-planaren eremuan sartzen diren hariztietako oihan-habitata hobetzeko asmoz.

– Oihan-ustiapenik gabeko unadak mugatu eta zaintzea, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko 13/1990 Foru Legeak (55eko oihan-erreserbak onura publikoko mendietan eta mendi babestaileetan), eta lurraldea babestu eta erabiltzeko eskualdeko hirigintza-arauei buruzko 6/1987 Foru Legeak (herri baso edo mendietan %2a ustiatu gabe uztea) xedatu bezala. Oihan erreserba eta ustiatu gabeko unadak aukeratzerakoan, ondoen kontserbatu diren hariztiei emango zaie lehentasuna, bestelako oihan-formazioen gainetik.

Populazioak ikertu eta kontrolatzeko neurrien artean, alegia, Nafarroako banaketa geografikoa, populazioaren neurria eta espeziearen eskakizun ekologikoak hobeto ezagutzeko diren haien artean azpimarratuko ditugu:

– Nafarroako iparmendebaldeko hariztirik onenak sistematikoki eta bereziki arakatzea, toki bakoitzean okil ertainik den ala ez jakiteko eta hura zaintzeko neurri egokiak sustatzeko.

– Egun ezagutzen diren populazioen jarraipena (Olaldea, Monte Hermoso eta Ameskoa), egun populazioak duen neurria zehatzago jakiteko eta espezieak gehien erabiltzen duen oihangunean zehazteko. Interes bereziko eremuak finkatzeko aukera emango digu horrek, eta ezagutzen den populazio bakoitzaren eta Nafarroako populazio guztiaren benetako bilakaera etorkizunean egiaztatzeko oinarriak ezartzeko.

Espezieari buruzko ezagupenak Nafarroan hutsaren hurrengo direnez, zabalkunde eta sentikortze jarduketek berebiziko garrantzia hartuko dute planean. Hiru alditan jarri dira:

– Hasieran, iritzi publikoa espezieari buruz sentikortzeko zabalkunde kanpaina orokorra.

– Bigarren aldiak natura zaintzeko sentiberago direnak hartuko lituzke (gazteak eta turismo berdea, beriziki), berreskuratze-planaren ezarpen eremuaren baitako aldeetan.

– Horrekin batera, berreskuratze-planak gehien ukitzen dituen profesionalak prestatu eta kontzientziatzeko ikastaroak egiteko beharra agertzen du berreskuratze planak; bereziki, Ingurugiro teknikari, mendi zaindari, zaindariorde, zaintzaile nagusi eta zaintzaileendako, horien esku baitago, hein handi batean, oihan-habitaten zaintza.

8.- Nekazaritzari, ehizari, kirolari eta jokuei edo aisialdiari dagokienez, zer murrizketa ezarri

beharko lirateke jarduera horien garapena espezie hori eta haren habitatak zaintzeko baldintzekin bat etortzeko?

Nekazaritzak, abeltzaintzak eta ehizak gutxi ukitzen dituzten beste baso-espezie batzuk bezala, berreskuratze-planak aurreikusten dituen eremu kritikoetako erabilera-murrizketak oihanzaintza eta ustiapenekoak besterik ez dira. Beraz, okil ertainaren interes bereziko guneez denaz bezainbatean, ez da murrizketarik ezartzea komeni nekazaritzari, ehizari, kirolari eta jokuei edo aisialdiari dagokienez.

9. Beharrezkoa da edo aurreikusten da espezie horren birkolonizazioa espeziea har lezaketen bestelako habitatetan? Zenbat ale beharko litzateke sartu, ustez?

Behin-behineko berreskuratze-planak ez du, oraingoz, okil ertain alerik sartzea aurreikusten, espezieak irauteko behar duen oihan-habitatari eutsiko zaiola ziurtatzeko neurririk hartzen ez den bitartean. Espeziea inguru degradatuan artifizialki sartzeak ez du ezertako balio, kontuan hartzen bada espezieak gure Komunitatean izan duen murrizpenaren arrazoi nagusiak habitataren zatiketa, degradazioa eta atzerakada izan direla.

10.- Berreskurapen planaren garapena espezie hori bizi dela dakigun ondoko Komunitateetara zabaltzen da edo horiek ukitzen ditu? Zer kontsulta eta koordinazio tresna ezarri asmo dira haiekin Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentutik? Eta Estatuko erakundeekin?

Nafarroako okil ertainaren populazioaren iraupena hertsiki loturik dago Euskal Autonomi Erkidegoko ameztirik onenek eta handienek izan dezaketen bilakaera eta balizko babesarekin. Kontuan hartzen badugu Arabako populazio guneen menpe gaudela, zenbakizko garrantzia handia dutelarik, behin-behineko planak lankidetza estua gomendatzen du Euskal Autonomi Erkidegoarekin, okil ertainak iraungo badu.

Ildo horri jarraiki, berreskuratze-planaren proiektuak hauetxek aurreikusten ditu:

– Euskal Autonomi Elkarteko eta Arabako eta Gipuzkoako Foru Diputazioetako ingurugiro zerbitzuekiko harremana izatea, oihan eta zaintza politika amankomuna ezartzeko asmoz, okil ertainaren egungo populazioa mantendu eta gehituko dela ziurtatu, hariztiak bereoneratzea erraztu eta populazio gune kantabriko-pirenaikoen trukatze genetiko eta demografikoa bideratzeko.

– Nafarroako Gobernuak parte har dezala espeziearen biologia eta beharrizan ekologikoak hobeto ezagutzeko egiten diren autonomiaz gaindiko proiektuetan.

11.- Espezie horren berreskurapen planak izan dezake finantzaketarik beste edozein entitate publiko edo pribatutatik, bai gure Komunitatean, bai kanpoan?

Nafarroako okil ertaina berreskuratzeko planak ez du finantzaketa publiko edo pribaturik, oraingoz behintzat.

12.- Ba ote dauka Nafarroako Gobernuak behin-behineko edo behin betiko egutegirik berreskurapen plana aztertu, prestatu, argitaratu eta abian jartzeko?

Ez dago aipatu plana onartu eta abiarazteko behin betiko egutegirik.

13.- Ba ote du asmorik Nafarroako Gobernuak berreskurapen planak inola ukitzen dituen toki entitateekin aldez aurretik harremanik edo kontsultarik izateko? Eta espezie horren berreskurapen planak ukituriko elkargo, federazio eta bestelako taldeekin?

Planaren aplikazio-eremua behin betikoz finkatu eta gero, udal-dermioa eremu horren barruan duten toki entitateei jakinaraziko zaie eta audientzia emango. Gainerako entitateek, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aholkularitza organoen bitartez har dezakete parte, edo bestela, azken finean, jendaurreko erakusketan.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 18an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

# Galzorian dauden espezieei buruzko berreskurapen plana prestatzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak galzorian dauden espezieei buruzko berreskurapen plana prestatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizalean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 22a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak galzorian dauden espezieen gaineko berreskurapen plana prestatzeari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Ba ote dauka ezarririk Nafarroako Gobernuak jarduketa egutegi bat, haietariko bakoitzaren berreskurapen plana aztertu, prestatu, garatu, kontsultatu, argitaratu, alegazioak ebatzi eta abian jartzeko?

Nafarroako Gobernuak ez du aurretik erabaki arriskuan dauden espezieen Nafarroako katalogoak “galtzeko arriskuan” kategorian sartutako espezieen berreskuratze-planak abiarazteko egutegirik.

Berreskuratze-plan batzuk onetsita daude (hartz arrea, ugatza, ibaiko karramarroa eta Bonelli arranoa); beste batzuetan, espezieari buruzko azterlanak nahiko aurreratuta daude, planaren zirriborroa ere bada; eta, azkenik, beste batzuetan azterketak bukatzeko zain daude lan-dokumentua emateko, berreskuratze-plan bihurtuko dena.

Horrek esan nahi du gogotik ari direla lanean espezie horien inguruan, mehatxu handiagoa jasaten dutenez, babes handiagoa ere behar dutelako.

2.- Noizko aurreikusten da Nafarroako Gobernuak onetsiko dituela lehen aipaturiko espezieen berreskurapen planak?

Ez dago aurreikusita hurrengo berreskuratzeplanak noiz onartuko diren. Edonola ere, lanean ari dira bukatzeke dauden gehienak epe ertainean onartu ahal izateko.

3.- Noizko aurreikusten da indarra hartuko duela lehen aipaturiko espezie bakoitzarendako berreskurapen planak eta, hortaz, egitez abian jarriko dela?

Indarra hartzea, hori gauzak dakarrena da, Nafarroako Gobernuak planak onartzean gertatuko da, jendaurrean erakutsi eta Nafarroako Ingurugiroaren Kontseiluak txostena emateko nahitaezko izapideen ondotik.

Iruñean, 1997ko otsailaren 19an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

---

# Ingurugiro Departamentuaren eta Urbasa eta Andiako Parke Naturalean eskubide historikoak eta erabilerakoak dituzten solaskideen arteko harremanei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Ingurugiro Departamentuaren eta Urbasa eta Andiako Parke Naturalean eskubide historikoak eta erabilerakoak dituzten solaskideen arteko harremanei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 22a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeko kide den Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Ingurugiro Departamentuaren eta Urbasa eta Andiako Parke Naturalean eskubide historikoak eta erabilerakoak dituzten solaskideen arteko harremanei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Limitaciones Batzordeaz aparte, gutxienez honek bezainbesteko kutsu historiko duten beste hainbat talde aintzat hartu al da?

Nafarroako Gobernuak Urbasa eta Andiako Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren proiektua hasieran onartu zuenean, hurrengoei jakinarazi zien, propio eta hartu izana jasota:

• Udalak: Larraona, Aranaratxe, Eulate, Ameskoabarren, Ziordia, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Abartzuza, Ollaran, Lezaun, Altsasu, Etxarri Aranatz, Olazti.

• Kontzejuak: Ekala, San Martin, Zudairi, Bakedano, Gollano, Artatza, Barindano, Etxabarri, Eraul.

• Sakana, Urdiain eta Erkuden ehiztari elkarteak. “Club de cazadores de Las Amescoas”. Sakana Eguzki Talde Ekologista. Iruñerriko Mankomunitatea. Sakanako Mankomunitatea. Energía Hidroeléctrica de Navarra, S.A. Urbasa eta Andiako Larre Batzarra. I.T.G. Vacuno. Anat-Lane. Herri Batasuna. Limitaciones Mendiko Batzarra. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua; Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentua; Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua.

Beraz, Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren eremuaren baitan edo haren inguruan ziren udal dermioetako toki entitate eta bestelako erakundeei jakinarazi zaie. Horietaz gain, Lurraldearen Antolamendu eta Ingurugiro Kontseilariak urriaren 27ko 341/1993 Foru Aginduz onetsitako Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren lehen emanaldiari alegazioak aurkeztu zizkioten erakundeei ere bidali zitzaien.

Deierriko Udalari ez zitzaionez jakinarazi, eta Urbasa mendia administrazioz hari atxiki zaionez, 1996ko otsailaren 26an eman zitzaion eskura jakinarazpena aipatu Udaleko Alkateari berari.

Alegazioak aurkezteko epea bukatu ondoren, eta jaso izana jasota, bidali zitzaion alegaziogile orori Urbasa eta Andiako Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren proiektuari aurkeztu alegazioei buruzko txostenaren kopia.

2.- Norekin egon da?

Limitaciones Mendiko Batzarrarekin eta Ameskoagoien eta Ameskoabarreneko udalekin izandakoez gain, hurrengo bilera informatiboak ere egin ziren:

• 1996ko urtarrilaren 24an: Iruñean, Urbasa eta Andiako Larre Batzarrarekin.

• 1996ko otsailaren 5ean: Iruñean, Deierri, Abartzuza, Lezaun eta Gesalazko udalekin.

• 1996ko otsailaren 26an: Urdiainen, Sakanako Mankomunitatearekin (Urdiain, Altsasu, Etxarri, Bakaiku, Iturmendi eta Olaztiko alkateekin).

• 1996ko martxoaren 5ean: Altsasun, Altsasuko Udaleko Alkate eta Ingurugiro zinegotziarekin.

1996ko martxoaren 6an: Arizalan, Deierriko Udalarekin eta auzoekin.

1996ko apirilaren 22an eta 29an: Iruñean, Sakanako ehiztari elkarteen eta Adecanaren ordezkariekin.

Horietxek dira Urbasa eta Andiako Natur Baliabideak Antolatzeko Planari buruzko informazioa emateko egin diren bilera nagusiak, partikularrekin gai berari buruz egindakoak albo batera utzita.

3.- Eraul eta Etxabarriko ordezkariekin harremanik izan al da?

Kontzeju biok izan dute gainerako toki enteei eman zaien tratu bera: Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren kopia eman zitzaien, jarduketa guztiak jakinarazi zaizkie eta, gainera, zuzeneko harremana izan zen Etxabarriko alkate ohiarekin, hark eskatutako informazioa emateko. Bilera horretan mahai gainean jarri ziren kontzejuok Ameskoatik bereiztearen historia eta arazoak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek ezarritakoaren babespean.

Iruñean, 1997ko otsailaren 17a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo.

HARPIDETZAREN PREZIOA

ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA

| | | |
|---|---|---|
| Urte bat | 5.800 | pta. |
| Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa | 130 | » . |
| Bilkura Egunkariaren aleko prezioa | 165 | » . |

IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

**NAFARROAKO PARLAMENTUA**

«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»

Arrieta, 12, 3

31002 IRUÑEA

Inprimatzailea: Gráficas ONA, S. A.—Artika (Nafarroa). Lege Gordailua: NA—363-1995

Paper Ekologiko birziklatua